




**Hilaren 29an hasiko dira
Algortako saninazioak,
Nazioarteko Paella
Lehiaketaren ostean ▶2-3**



**Domekan, Dantza Jaialdia
eginiko dute Sopelan. Euskal
Herriko, Hegoafrikako eta
Udmurtiako taldeakaz ▶7**

hiruka

Uribe Kostako astekaria



26. zenbakia

2015eko
uztailaren 23tik
uztailaren 29ra arte

«Egoerei aurre egiteko jarrerak dakar arrakasta»



Xabier Uribe-Etxebarria
getxozarrak arrakasta lortu
du Sherpa Next laguntzaile
pertsonalerako aplikazioagaz. ▶16-17

SAKONEAN GETXO

Austriatik dator saria

Gorrondatxek denbora geologikoa
hoberen neurtzen duela onartu du
Estratigrafiaren Nazioarteko
II. Kongresuak, Aitor Payros eta
ikerlari- taldea sarituz. ▶22-23



KULTURA PLENTZIA / GETXO

Betiko kantik, plazara!

Benito Lertxundik Plentzian
kantatuko du abuztuaren 22an;
eta Oskorri taldeak agur esango
digu irailaren 6an, Areetan.

Salgai daude, 20 euroan, Benito Lertxundik Jai Alai pilotalekuan eskainiko duen kontzerturako sarrerak, Kutxa-bankeko webgunean. Getxo Folk Jaialdian, Oskorriren azken emanaldietako bat ikusteko txartelak (10 euro) azkar batean agortuko dira. ▶11

URIBE KOSTAKO UDA
**ARGAZKI-
LEHIAKETA**
1.000 €ko saria!



info +: 14-15. orrialdeak

Getxoko Begoñako galerien birgaitzea fase berrian sartu da, eta udarako bisita gidatuak hasi dituzte. ▶4

Pinosologaz, berriro hutsetik hastea erabaki du Leioako PSEk. EAJgaz hitzarmena sinatzea ez da «erraza» izan. ▶6

Uztailaren 24an, barikuagaz, hasiko dira Berangoko Santa Ana auzoko jaiak eta Gorlizko santiagoak. ▶8/10

Plentziako hiribilduko bandera jokatu dute zapatuan Kantauriko arraunlari beteranoek. Batera faboritua da. ▶18

REBEL TATTOO



Basagoiti 73, 48991 ALGORTA
TF. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

SARTU GURE WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza
inprimategia
kopisteria

cianoplan
Global Printing

Gidabaimena EUSKARAZ
SAN INAZIO AUTOESKOLAK
Telletxe 13, Algorta

GETXON GIDARI EUSKALDUNAK

JATETXEA KAFETEGIA BOGA



Basagoiti etorbidea, 63
48991 ALGORTA
94 491 57 94
www.restauranteboga.net

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

GAVRKO



GIZONENTZAKO MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

I

Iñaki Bitxitegia

MONTBLANC, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

GetxoGasol

Txartel hau aurkeztzen baduzu
%50eko deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epe mugagatik)

BODEGUILLA BUTRON



Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

SALSIDU
taberna



Tiragoma eta Kana txapelketa San Inazioetan
Salsidu 9 atzekoa, Algorta



Hilaren 25ean, etxolez beteta esnatuko da Aixerrotako landa.

Paellak prest!

Itxas Argia elkarteak Nazioarteko Paella Lehiaketaren 60. edizioa egingo du zapatu honetan, hilak 25. Aurtun gainera, Singapurretik etorritako 3 sukaldarik parte hartuko dute, Australiako lehiaketako irabazleak dira, hain zuzen ere. Ofizialki 10:30ean hasiko den paellen lehiaketaz gainera,

jai-egitaraua ere egongo da: 12:00etan UKTESTek txalaparta-deia egingo du; ondoren, Itxas Argia elkarte txikien taldeak dantzen alardea egingo du; eta 13:30ean, paellak aurkeztzen hasi beharko dute parte-hartzaileek. Arrastian, 17:30ean sariak banatuko dituzte, eta, jarraian, erromeria egongo da. ◀

Barikuan emango diete hasiera Santa Anako jaiak

Barikuan, hilak 24, hasiko dira Areetako Santa Ana auzoko jaiak, domekara arteko egitarauagaz. Bariku arrastian, umeentzako txikigunea egongo da; baina, 19:30ean emango diete hasiera ofiziala, txupinaren jaurtiketaz. Gero, buruhandiek auzoko bazter denak astindu ostean, sardina-jana eta *hard rock* kontzertuak egongo dira. Zapatuan, umeek arrantza eta jolasak izango dituzte. Eguerdian, herri-bazkaria, eta gero, igel eta txapel lehiaketa egingo dute. Iluntzean, saiheskiak jan eta kontzertu akustikoak gozatu ahal izango da. Domekan, herri-kirolen eta euskal dantzen erakustaldiak egingo dituzte. ◀

Ekitaldi batzuk

Uztailak 24, barikua

17:00 Txikigunea.

19:30 Txupinaren jaurtiketa, eta buruhandiak.

22:30 *Hard Rock* kontzertuak.

Uztailak 25, zapatua

09:00 Hil gabeko arrantza-lehiaketa.

14:30 Herri-bazkaria.

20:30 Saiheski-dastaketa.

22:30 Kontzertu akustikoak.

Uztailak 26, domeka

11:00 Futbol 3ko txapelketa.

13:30 Euskal dantzen ikuskizuna.

18:30 Herri-kirolen erakustaldia.

PEÑE Athletic Club GORROK



BAR GOIKOA - Alango, 14 - Algorta (Getxo) - tel. 94 602 53 93

BASTER
taberna



Orobio kalea, 2 Algorta

PINTXO POTE
OSTEGUNETAN
12:00 ETATIK
15:00ak ARTE



Portu Zaharra Bar

ITXASGANE



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritzu z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

TABERNA Ekin
JATETXEA



CALLE BOLUE Nº4 TEL: 946080462

TABERNA Unai
JATETXEA



ALGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM



Algortako jaiak, saninazioak



Ekitaldi batzuk

Uztailak 29, eguaztena

- 18:00** Pregoiaren irakurketa eta txupinaren jaurtiketa, San Nikolas plazan.
18:30 Kuadrillen jaitsiera, San Nikolas plazatik.
22:00 Katez eta Eskean Kristo taldeen kontzertua, San Nikolas plazan.

Uztailak 30, eguena

- 12:00** Kuadrillentzako *painball*-a, Bihotz Alai plazan.
13:00 (Egunero) Bertsolariak, Kasinoan.
15:00 Kuadrillen bazkaria, San Nikolas plazan.
20:00 Jaitsiera tradizionala.
22:30 Anestesia, Back Bone eta Drop taldeen kontzertua, San Nikolas plazan.

Uztailak 31, barikua

- 09:30** 70. Getxo txirrindularitza-Zirkuitua.
15:00 Bertso Maratoia.
17:30 Herri-kirolak, Telletxen.
14:30 Herri-bazkari animatua, parkingean.
23:00 Suak, Pirotecnia Astondoagaz.
23:00 Kontzertuak, Tutan Come On eta Patrol Destroyers taldeakaz.

Abuztuak 1, zapatua

- 11:00** Gazte-hamaiketakoa.
15:00 Gazte-bazkaria, San Nikolas plazan.
22:30 Cockney Rejects, 4anai eta Erasoka taldeen kontzertua, San Nikolasen.

Abuztuak 2, domeka

- 08:30** XVII. Txipiroi-txapelketa, Bihotz Alai.
19:00 Dantza-plaza, San Nikolasen.
23:00 Erromeria, San Nikolasen.

 Andres Cortina, 4
Algorta - Getxo
Tel. 94 491 09 67
608 577 446
cafeateria@pensionbasagoiti.es
ONDO PASA JALETAN!

Bgo
txu
Algortako etorbidea, 88 - 48991 Getxo (Bizkaia)
Tfnoa. 94 406 25 40 - Email: becobisa@gmail.com


CHARLOT
Barra kanpoan, 6.00ak arte irekita
ONDO PASA JALETAN!


THE PIPER'S
RISH PUB
94 491 11 85
Avenida Basagoiti, 47, bajo
48991 Algorta, Getxo, Bizkaia
www.pipersalgorta.com


maga
calzados
Torre 4 (48991) Algorta - Tf: 94 491 67 82
c: maga@hotmail.com
www.facebook.com/magacalzados


Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93


KONTXI
ZUZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiatzpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!
Alangoharri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93


LAINOA
taberna
Kombinatu eta pintxo bereziak
Urgull kalea, Algorta


ASESORIA
DE IMAGEN
ALGORTAKO ETORBIDEA, 53
944 040 680
heraigorta@gmail.com
HERAigorta

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK
Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

lasai
bar
Euskal Herria kalea, 22
ONDO PASA JALETAN!

OIARBIDE
DEKORAZIOA
Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
Eskaiola: moldurak, kornisak
Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...
Tf. 656 76 98 10 gorkaoliarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

GURE
ETXEA
taberna
HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gubxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lizarreniak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

OSTBIDE HORTZ ILINIKA
Arantza Etxebarria
• Odontologia orokorra
• Ortodontzia
• Periodontzia
• PADI
Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96


Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
gura izanez gero,
etxera erorango dizugu
egunkaria!!!
Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34


PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

Getxo

Galerien birgaitzea fase berrian sartu da

Uztailean, abuztuan eta irailean hainbat bisita gidatu egingo dituzte Begoñako galeriak eta bertan egiten dabilzan lanak ezagutzeko.



Hilaren 21ean abiatu zituzten bisitak berriro ere.

Getxoko Udalak eta EHUK konpromisoa agertu dute Begoñako galeriak berreskuratzeko eta balioan ipintzeko prozesuagaz aurrera jarraitzeko. Eraikin hori Getxoko paisaiaren mugarri da, eta horrez gainera, XX. mendearen hasierako Bizkaiko eraikin esanguratsuenetako bat ere bada, bere erabileraren berezitasunagatik, bere kokapenagatik, eta eraikuntzan erabilitako teknologiagatik, oso herritzailea izan zen-eta. Udalak eta EHUK sinatutako hitzarmenari esker egiten dabilta galerien gaineko ikerketa-proiektua. Hala, EHUKo hainbat arlotako adituek bost ikerketa-talde osatu dituzte, eta galeriak berreskuratzeko helburu komuna dute. Diziiplina askotariko proiektua da, eta publikoari zabalik dago. Osatutako bost ikerketa-taldeak honako hauek dira: Ikerkuntza eta Berrikuntza Analitikoa, Ondare Eraikiari Buruzko Ikerketa Taldea, Hidro(geo)logia-Geoteknia-Ingurumena, Kultura-ondasunaren Kontserbazio Taldea, eta Cultural Landscape and Heritage Unesco Katedra. ◀

Bisitak euskaraz

Uztailak 24, barikua 12:00

Uztailak 29, eguaztena 12:00

Abuztuak 8, zapatua 13:00

Abuztuak 14, barikua 12:00

Abuztuak 18, martitzena 12:00

Abuztuak 23, domeka 13:00

Abuztuak 26, eguaztena 12:00

Abuztuak 29, zapatua 13:00

Irailak 1, martitzena 12:00

Irailak 5, zapatua 13:00

Irailak 10, eguena 12:00

Irailak 13, domeka 13:00

Irailak 18, barikua 13:00

Irailak 24, eguena 12:00

Irailak 27, domeka 13:00

Lekua gordetzeko: 944 910 800

Falange y Tradicion taldeko ustezko hiru kide, epaituta

Jose Ignacio Irusta, Javier Lopez Monreal eta Borja Perez Illera Falange y Tradicion talde faxistako ustezko kideak epaitu dituzte Espainiako Auzitegi Nazionalean, Nafarroan «helburu terroristak betetzeko mehatxu eta kalteak» eragitea egotzita. Baikoitzarentzat zazpi urteko kartzela-zigorra eskatu du fiskaltzak. Guardia Zibilak 2009ko urrian egin zuen haien aurkako operazioa. Epaiketan, hiru akusatuek ukatu dute eskuin muturreko talde horren kide direnik. Lehenengo aldiz eskatu du Auzitegi Nazionalako Fiskaltzak eskuin muturreko talde bat epai dezaten, terrorismo delituak egotzita. Falange y Tradicion es-

kuin muturreko taldeak hainbat ekintza egin zituen, Nafarroan batez ere, baina handik kanpo ere bai: Getxon, Bilbon, Irunen eta Oiartzunen, berbarako. Hainbat hedabideri bidalitako oharren bitartez, taldeak bere gain hartu zituen Euskal Herri osoan gertatutako 25 eraso faxista, horien artean: 9 mm-ko kalibreko parabellum bala bat zeroan gutun bat bidali zioten Sonia Polo hainbat urtez Sopelan bizi eta 2009ko Aste Nagusiko txupinera izan zenari, Sergio Polo ETako kidearen arreba izateagatik. Era berean, Algortako Zigor eta Arkaitz Goikoetxearen aita-amen Azkorriko (Getxo) baserriaren kontrako erasoak egin zuten. ◀

Altzariak eta inausketako hondakinak batzeko zerbitzua

Getxoko Udalak altzariak eta inausketak hondakinak biltzeko zerbitzu berria ipini zuen martxan hilaren 20an. Altzarien kasuan, atariaren aurreko galtzadan utzi beharko dituzte, eta han ezin badituzte utzi, puntu horretatik gertuen dagoen edukiontzia-aren ondoan, 22:00etatik 06:00etara bitartean, «beti ere trafikoari eta edukiontzien bilketa-lanari eragozpenik eragin gabe», azaldu dutenez. Zerbi-

tzua baliatzeko, eskaria egin beharko da aurretik, 944 644 380 telefono-zenbakian edo udal webgunean.

Bide horien bitartez, hondakinak zein egunetan utz ditzaketen adieraziko diete zerbitzuko beharginek. Inausketak hondakinak batzeko zerbitzua eskatzeko ere, bide berberetatik egin beharra dago. ◀

harremanetarako: 944 644 380
www.getxo.info-citi.es



Herriko hainbat emakume-elkarteri emango diete tapoien birziklatzeagaz lortuko den dirua.

Udalerriko jaietan, jarri tapoia eraso sexistei!

Udalak herriko jaietan eraso sexistaren kontrako kanpaina ipini du martxan, «Jaietan, jarri tapoia eraso sexistei» goiburuagaz. Herriko jai-batzordeak eta hainbat emakume-elkartegaz elkarlanean abiatu du kanpaina Udalak. Horren helburu nagusia aurreko urteetakoa da: orokorrean herritarrek, eta bereziki gazteak, sentibilizatu gura dituzte bai eraso sexisten inguruan, bai emakumeek jaietan ere pairatzen duten indarkeriaren inguruan. Getxoko kaleetan eraso sexistak «garbitzen» ere herritarrek esku har dezaten lortu nahi du kanpainak. Horretarako, ingurumena zaintzeagaz eta jasangarritasunagaz bat

egingo duten hainbat sentsibilizazio ekintza prestatu dituzte. Alde bateatik, herritarrek animatu gura dituzte plastikozko botilen tapoien batze sinbolikoan parte hartzea, eta horrela, jai-eremuetako txosnetan eta tabernetan jarriko diren 80 bat edukiontzitan utzi eta birziklatzeko. Berdintasun alorrean lanean dabilzan hainbat emakume-elkarterentzat izango da prozesu horregaz aterako den dirua. Era berean, sentsibilizazio-bideo bat eta beste bi ekimen egingo dituzte kanpainaren jendartean zabaltzeko, Nazioarteko Paella Lehiaketan eta Itzubaltzeta/Romoko jaietan. ◀

info +: www.getxo.eus

Getxo



Osoko bilkurak arrastiz egitea adostu bazuten ere, uztailakoa goizez egingo dute.

Osoko bilkura hilaren 24ra aurreratu dute

Uztailako azken osoko bilkurak hilaren 29an izan behar zuen, eguaztenegaz eta arrastian. Hala ere, egun horretan Algortako San Inazio jaiak hasten direnez, bilkura aurreratzea eskatu zuten hainbat alderdik. Batzuek egun bat aurreratzeagaz nahikoa zela zioten, baina azkenean hilaren 24an, barikuan, egingo dute, goizez. GUKeko eta EH Bilduko zinegotziek erabaki hori salatu dute, «osoko bilkurak arratsaldeetan izatea adostu zen», gogoratu du Arantza Gutierrez koalizio abertzaleko zine-

gotziak. Aldaketa hilaren 28an egitea eskatu zuten alderdi biek, «arazo gutxi eragingo lukeen aldaketa zelakoan», informazio-batzordeei begira. Era berean, EH Bilduko kideek uste dutenez, aldaketa hori oporren kontuagatik izan liteke, hainbat zinegotzi aste horretan herritik kanpo egongo direlakoan. Hori dela eta, galdera bat egin du Ibon Rodriguez EH Bilduko kideak: «zinegotziok osoko bilkura hileko azken eguaztenean dela jakinda, batzuek zergatik planifikatzen dituzte oporrak data hori baino lehenago?».

San Nikolasen eta Telletxen egongo dira txosnak aurten

Udako festak heltzear daude, eta horregaz batera, jai-giroa, txosna-gunea... Saninazioetan, lau txosna egongo dira Telletxeko aparkalekuan. Jai-batzordearena, ostera, San Nikolas plazako frontoian egongo da, eszenatoki nagusiaren ondoan. Ordu-tegiari dagokionez, zuzeneko musika 03:00etan amaituko da, jai-bezperetan; eta 01:30ean, astegun bezperetan.

Txosnetako eta tabernetako musika, berriz, 05:00etan amaituko da jai-bezperetan; 01:30ean, jaietako azken egunean, eta 03:30ean, gainontzeko egunetan. Txosnen itxiera, berriz, musika kendu eta ordubetera izango da; azken egunean izan ezik, ordu berean izan beharko baita. Tabernek ohi baino ordu eta erdi beranduago itxi ahal izango dute jaietan.

Getxoz gozatzeko 41 plan aurkeztu dituzte

Getxoko eskaintza turistikoa jendeari hurbiltzeko asmoz, Turismo Bulegoak 41 plan Getxon gozatzeko liburuxka argitaratu du. Liburuxkak 180 enpresaren eskaintzak sustatzen eta zabaltzen ditu, eta bestelako planak proposatu, baliabide ezagunetik harago. Atal hauetan dago egituratuta: Getxoko Kostaldea, Getxo Monumentala-Kulturala, Getxo Aktiboa, eta Getxo Gastronomikoa. Turismo-bulegoetan eskuratu daiteke liburuxka.

Soloeta eta Isla, BFaren bi zuzendari

Aitor Soloeta Eraso Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun zuzendari nagusia izango da. Soloeta Getxoko Ogasun, Turismo eta Sustapen ekonomikoko zinegotzi, BBK-ko presidentorde eta, kutxen fusioaren ostean, fundazioaren Patronatuko kide izan zen. Bestalde, Nekazaritza zuzendari izendatu dute Lucia Isla Llona, EAJren Algortako Uri Buru Batzarreko kidea, eta Jose Isla Lombera Getxoko Udaleko zinegotzi izan zenaren alaba.

Erandio



Joseba Goikouria jeltkidea eta Elena Perez sozialista, elkarri eskua ematen.

Agintarien soldatak, ika-miken sorburu

Udal Gobernuako kideek dauzkaten soldaten harira, ika-mika izan zuten orain egun batzuk EH Bilduk eta PSE-EEK; ordainsariak «gehiegizkoak» zirela salatu zuen koalizio abertzaleak, kaleetan jarritako kartelen bidez. Juan Otermin PSE-ko zinegotzi izandakoak, ostera, hainbat «zehaztapen» egin zituen, hilaren 15an, Eco de Erandio Facebook taldean; besteak beste, Jorge Gonzalez zinegotzi sozialistak urteko 29.989 euroko ordainsaririk ez zeukala aipatu zuen Oterminen, eta Gonzalezek be-

rak baieztatu zuen diru horri uko egin diola. «Gezurretan» zebiltzala ziotenei aurre egiteko, Ana Crespo Erandioko EH Bilduren bozeramaileak ere parte hartu zuen Facebookeko eztabaidan. Azaldu zuenez, soldatak uztailaren 2ko osoko bilkuran onartu zituzten, eta «egun horretan inork ere ez zuen aipatu Jorge Gonzalezek soldadari uko egiten zionik». Cresporen arabera, hilaren 15ean jakin zuten, PSEko beste zinegotzi baten ahotik. Hala ere, «soldatak gehiegizkoak» izaten jarraitzen dutela uste dute EH Bildukoek.

Uztail akabuan itxiko dituzte udako kaleko liburutegiak

Hilabete osoz, Astrabuduko Josu Murueta, Altzagako Irailaren 23a eta Erandiogoikoko Euskadi plazetan egon dira zabalik kale-liburutegiak. Uztailaren 30ean itxiko dituzte, datorren udara arte. Egun hori heldu artean, txikiek edukiko dute irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzez eta bestelako jardura osagarriez gozatze-ko aukera (antzerkia, tailerrak...).



Irakurzaletasuna eta jolasak batuko dituzte..

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZA

SGS
Nº ES109014

SGS
Nº ES109015

Indeiza

- Soropila Ezartzea**
Irazoia prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzio-organitze lanak eta beste lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea**
Moztea, ureztatzea, organitzea, egurastea, aratzea eta destinkatzea, bemelkatzea, soropila gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak**
Hazteko, mantentzeko, beritzeko, zuhaioa apaingarriak inauszea, esabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea**

Xipe ibaitza 28A beheko solairua B12 lokala (ERANDIO) | Meg: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Fax: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net - www.luberr.biz

Leioa

Pinosolo auziagaz, berriro hutsetik hasi da Leioako PSE-EE

Arruebarrena alkate ohiak auzian izandako ustezko ardurak aztertzeari uko egin dio Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordeak.



Uztailaren 10ean izenpetu zuten Udal Gobernua osatzeko hitzarmena EAJk eta PSE-EEK.

Leioako EAJgaz Udal Gobernua osatzeko hitzarmena izenpetzea «erraza egin ez» zitzaieela adierazi zuen Juan Carlos Martinez Leioako PSE-EEko bozeramaileak, uztailaren 16an egindako ezohiko osoko bilkuran; «Bizkai osoan azkenak izan ginen akordioa sinatzen», gaineratu zuenez. Izan ere, ustezko irregulartasunak argitzeko, Pinosolo auzia ikertzeko batzordean izandako jarrera aktiboaren ostean, EAJgaz hitzarmena eginda, «arduragabekeriak jokatzea» egotzi zien Xabier Olabarrieta PPko ordezkariak sozialistei. «EAJren inbestidura babestu bai, baina Udal Gobernuan sartuko ez zirela» uste zuen Arkaitz Fullaondo EH Bilduko eledunak. Martinezek «klabe positiboan begiratzeko unea» zela erantzun zien bati zein besteari.

«2012ko abenduan ikerketa-batzordea abian jarri genuenean, gaia udal batzarrean konpondu behar zela esan genuen, auzitegiek hartzen duten erabakiei kalte egin barik; eta hala egin dugu», aipatu zuen PSEko bozeramaileak. Hain zuzen, azaroaren 11ko osoko

bilkuran, Pinosoloko ikerketa-batzordea itxiztat eman zuten, EH Bilduren, PSEren eta PPren botoez. Oposizioko alderdiek ustezko irregulartasunak «frogatutzat» eman zituzten: kiroldegiko proiektua lehiaketa publikora atera baino lehen, Arcain enpresagaz elkarlanean ibili ei ziren aurreko alkate Eneko Arruebarrena eta Jon Loizaga zinegotzi ohia, ondorioztatu zuten. Ostera, orduan Udal Gobernua osatzen zuten EAJk eta Ezker Batuak sutsuki defendatu zuten agintarien «errugabetasuna». Zortzi hilabete geroago, Udal Gobernua osatzeko hitzarmena izenpetu dute EAJk eta PSEk.

Etika Publikorako Batzordea

Eusko Legebiltzarreko EH Bilduk «penagarritzat» jo du Jaurlaritzaren Etika Publikorako Batzordeak Arruebarrena Pinosolo auzian izandako ustezko ardurak aztertzeari uko egin izana. Koalizio abertzalearen ustez, aipatutako batzordeak «inplizituki babestu du» udal agintari izandakoa, Metro Bilbao garraio-enpresako kudeatzaile-postuan jarrai dezan. ◀

Datorren ikasturterako izen-ematea zabalik Sakonetan

Datorren ikasturteko jardueretan izena emateko epea astelehenean, uztailak 20, zabaldu zuten Sakoneta kiroldegiko bazkideentzat. Leioan erroldatuta daudenentzat, oster, hilaen 22an (eguztina), ireki zuten izena emateko aukera; eta aurreko baldintzak betetzen ez dituztenentzat, barikuan, hilak 24, 08:00etan, zabalduko dute epea. Udal iturriek azpimarratu dutenez, pasa den urtean inskribatuta egon zirenei lekua gordeko zaie irailerako. Leku libreak inskripzio-hurrenkeraz banatuko dira, eta lekuri egon ezean, itxaron-zerrendara pasatuko dira interesdunak. *Aguafitness*-a izango da 2015-2016 ikasturterako jar-

duera berria (astelehen, eguzten eta barikuetan, 08:10etik 09:00etara). Gainerakoak iazko berberak izango dira.

Zurezko aretoa

Hilabeteotan, Sakonetan birgaitzen dabilta gimnasioa moduan erabiltzen duten erabilera askotako zurezko aretoa. «Denboraren poderioz, egitura jakin batzuetan obrak egin behar dira, kiroldegia erabilgarritasuna hobetze aldera», adierazi dute kiroldegiko arduradunek, eta obrak urrian amaituko direla iragarri dute. Bien bitartean, kiroldegiko beste gune batzuetan egingo dituzte areto horretan egiten ziren jarduerak. ◀

Herritarrak eta elkarteak, galde-eske txandan baino ez



Osoko bilkurak, hileko azken eguenetan.

Udal batzarretan, auzotarren eta herriko elkarten parte-hartze aktiboa bermatzeko «arazoak» daudela onartu zuen Juan Carlos Martinez Leioako PSE-EEko bozeramaileak, uztailaren 16an egindako osoko bilkuran. Herritarren parte-hartzea sustatzeko, Eusko Jaurlaritzaren EH Bilduk aurkeztutako proposamenak Herritarren Partaidetza arloa bideratzeko gonbitea egin zien talde politiko biei agintari sozialistak. «Proposamenak aztertu eta Udal Arautegi Organikoan (UAO) beharrezko aldaketak egiteko prest» azaldu zen Martinez. Ondorengo bozketan, ordea, ez zen borondate hori islatu; EAJren eta PSEren botoak (gehiengo osoa) nahikoak izan ziren Eusko Jaurlaritzaren EH Bilduren proposamenak atzera botatzeko. Bozketak aurretik esana zuen Mari Carmen Urbieta alkate jeltokideak «UAOk alda-

ketarik behar ez» duela, Martinez sozialistak alkatearen berbak eta bereak ildo beretik zihoazela konbentzitzen ahalegindu arren. Urbietaren arabera, «udal batzarretan beti jaso dira herritarren eskaerak». EH Bilduren eledun Arkaitz Fullaondok azaldu zuenez, udal batzarretan «leioaztarren parte-hartze aktiboa sustatu behar da, gai-ordenaren barruan euren galderak eta eztabaidak baimenduz. Horretarako, udal araudian egin beharreko aldaketak martxan jartzea proposatzen dugu». Ildo beretik zihoazen informazio-batzordeetarako proposamenak.

Bestalde, osoko bilkurak azken eguenetan izango dira, 19:00etan.

Soldatak

Mari Carmen Urbieta (EAJ) alkateak urtean 67.087,02 euro kobratzen jarraituko du, 2008an ordainsariak izoztea onartu ostean. Juan Carlos Martinez (PSE-EE) alkateordeak, oster, 57.023,96 euro jasoko ditu urtean. Bestalde, hileko 603,48 euro ordainduko dizkiote alderdi politiko bakoitzari, eta 188,58 euro, zinegotziei. Dietak ere badaude, ohiko osoko bilkuretar (67,23 euro) edo ezohiko udal batzarretara (73,44 euro) joateagatik. Hurrenez hurren, ordainsariak %20 eta %15 jaistea eskatu zuten EH Bildu koalizioak eta Eusko Jaurlaritzaren EH Bildu koalizioak. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez:

Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



Sopela

Afrikar eta errusiar dantzak, domekan, uztailaren 26an



Emanaldia 20:00etan hasiko da.

Nazioarteko Dantza Jaialdia domeka honetan izango da, Larrabasterrako Urgitxieta plazan. Galdakao, Hegoafrika eta Udmurtiar Errepublikako taldeek dantzatuko dute.

Domeka arrastirako planik ez daukazu? Ikuskizun ederra izango da Larrabasterran. Auzoko jaiak amaitu berri daude, baina aste akabu honetan hitzordu polita izango da bertan. Izan ere, urtero legez, Sopelako Nazioarteko Dantza Jaialdia egingo da, 20:00etatik aurrera, Urgitxieta plazan (euria bada, Urko kiroldegian egingo dute dantza-erakustaldia).

Ohi den legez, hiru dantza-taldek parte hartuko dute, eta kolorez betetako ikuskizuna eskainiko dute. Oraingoan, gertuko taldea Galdakaotik iritsiko da: Andra Mari dantza-taldea. Beste talde biak, ostera, urrunetik: hegoaldeko, Soweto Thabisong Dance Companyko dantzariak etorriko dira, Hegoafrikatik; iparraldeko, berriz, Ensemble Folklorique National Italmas

taldeko lagunak iritsiko dira, Udmurtiar Errepublikatik (Errusiatik).

Taldez talde

Andra Mari Eusko Dantzari Taldea 1955ean sortu zuten Galdakaoko zenbait gaztek, eta ordutik hona, euskal dantzak eta kultura ezagutarazi dituzte, Euskal Herrian eta munduan barrera. Bere lan-interesak garatzearen ondorioz, Euskal Herri osoko erritu, musika eta dantza zaharrak ikertzeari, ikasteari eta berreskuratzeari ekin zion Andra Mari, eta errepertorio luzea eta zabala osatu dute.

Kanpoko talde biei dagokienez, euren dantzak gogoko badituzu, berriro ikusteko aukera izango duzu. Izan ere, beste hainbat folklore-jaialditan parte hartuko dute-eta datozen asteotan. ◀

info+: www.sopela.eus

Puntako surflari gazteak izango dira Arriateran

Gaurtik domekara bitartean, surflari gazte onenetakoak lehiatuko dira Sopelako Arriatera hondartzan, ASP Pro Junior Sopela surf txapelketan. Uztailaren 23tik 26ra izango da, eta European Junior Qualifying Series zirkuituaren barruko proba da. Bost proba dauzka zirkuituak, eta Sopelakoa hirugarrena izango da.

Sailkapenean, Natxo Gonzalez le-

hen postuan dago, gizonezkoen mailan; proba garrantzitsua izango da plentziarrarentzat. Iazko txapelketan finalerdietara heldu zen, eta oraingoan, Charly Quivront, Miguel Blanco eta Nelson Cloarec surflariei aurre egin beharko die. Emakumezkoetan, Teresa Bonvalot portugaldarra da lehenengoa, baina Ariane Ochoa euskalduna 200 puntura besterik ez dago. ◀



Hemengo eta Hango

GABI BASAÑEZ RUIZ
Abeltzaina

Jaietan bertoko solomo eta xingarra

Ez dut besterik eskatzen. Askoren helburu desiragarria ei da elikadura burujabetza. Baserritik eta kalera, bitartekaritza barik, gurearen defentsan. Teoria beharrezkoa den arren, borroka praktikan irabazten dira.

Txorizo, solomo, saiheski, letxuga, patata (Ei! Tosun salgai)... Zenbat tona eskualdeko jaietan? Ze ahalegin, antolakuntza dago ahalik eta gehien bertokoa eta osasuntsua izan dadin aurrerantzean? Entzuten hasia nago zuen komentarioak, «bertokoa garestia da...», «ez dago behar den kopurua...», «askoz lehenagotik prestatzen hasi behar da...». Eta badiotsuet: Praktika!!! ◀

DIDAK
hamilton
IDIOMAS
Dr. Landa 6 eta Berro 9 / 49600 SOPELA
TE 94 676 30 12
info@didadahamilton.com

LA LURREN
Hizkuntza
GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udaleko atzean)

Gosariak,
Pintxoak,
Girot eta musika onena
ONGI ETORRI!!
Bentabatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

Irunbat
galp
C/ Loloia Ander Deuna, 74
Teléfono: 946 764 625
Fax: 946 762 582
Web: www.irunbat.net
OFERTÓN MARTES Y SÁBADO



Hautzaindegitik batxilergora
arteko eskaintza
Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



Berango



Hilaren 24an, barikuagaz, Trikizio taldearen erromerian dantzatzeko aukera egongo da. © TRIKIZIO

Ekitaldiz gainezka datoz Santa Ana auzoko festak

Hilaren 24an hasiko dira Berangoko udako lehen jaiak, eta hilaren 26ra arte luzatuko dira.

Gertu ditugu Berangoko udako jaiak. Barikuan, hilaren 24an, hasiko dira Santa Ana jaiak, eta hilaren 26ra arte iraungo du jai-giroak. Ostean, abuztuaren 4an, Santo Domingoko festak

hasiko dira. Kontzertuak, erromeriak, kirol-jarduerak, txapelketak, umeentzako jolasak... Denetarik aurkitu ahal izango da berangoztarren eta udalerrira bertaratzen diren guztien gozamenarako.

Ospakizunak barikuan hasiko dira Santa Anan, arrastiko 07:00etan, umeentzako disko-festagaz. Ondoren, sardina-jana egingo dute 20:00etan, aurre egin ahal izateko osteko ekitaldiei: Otxandategi dantza-taldearen

emanaldia, eta kontzertuak, Emon eta Trikixio taldeakaz. Zapatuan, oster, sokatira txapelketagaz emango diote hasiera egunari, 11:00etan. Jarraian, txirrindularien txanda izango da Santa Ana zeharkatuko duen lasterketagaz. Umeek ere gozatzeko aukera izango dute puzgarriakaz, eta arrastian zaldi-probak, Tor magoaren emanaldia, txokolate-dastaketa eta disko-festa ere izango dituzte. Iluntzean, berriz, musikaren ordua helduko da,

Itziarren Semeak eta Gora Herria taldeakaz. Domekan, meza bategaz hasiko dute eguna; ondoren, Otxandategi dantza-taldeko umeen ikuskizuna den bitartean, nagusiek hamaiketako izango dute. Arrastian, herri-kirolen jokoak egingo dituzte familientzat eta, horren ostean, oilasko-pintxoak banatuko dituzte indarrak berreskuratzeko. Azkenik, Gaupasa taldeko bilbainadakaz emango diote amaiera Berangoko Santa Ana jaietako ospakizunei. ◀

Egitaraua

Uztailak 24, barikuan

19:00 Umeentzako disko-festa.
20:00 Sardina-jana.
21:00 Simon Otxandategi Dantza taldearen ikuskizuna.
23:30 Kontzertua, Emon taldeagaz.
01:00 Erromeria, Trikizio taldeagaz.

Uztailak 25, zapatuan

11:00 Sokatira-txapelketa.
12:00 «Txuma memoria» txirrindularitza-lasterketa.
12:00-14:00/16:30-19:30 Umeentzako puzgarriak.
18:00 Zaldi-probak.
19:30 Tor Magoa, Berango Antzokian.
20:30 Txokolate-dastaketa.
20:30 Disko-festa
23:30 Kontzertua: Itziarren Semeak.
01:00 Erromeria, Gora Herria taldeagaz.

Uztailak 26, domeka

12:00 Meza.
13:00 Nagusientzako hamaiketako, eta Simon Otxandategi Dantza Talde umeen ikuskizuna.
18:30-19:30 Herri-kiroletako jokoak familia osoarentzat.
19:30 Oilasko-pintxoaren banaketa.
20:30 Bilbainadak, Gaupasa taldeagaz.

Izena eman daiteke daborduko Udal Dantza Eskolan

Hilaren 30era arte dago Berangoko Udal Dantza Eskolan izena emateko aukera. Horretarako interesa dutenek udaletxera edo kultur etxera jo beharko dute.

Dantza eskolak hainbat ikastaro eskainiko ditu 2015-2016 ikasturterako, ume, gazte eta helduentzat. Dantza klasikoa 4 urtetik gorako zaleei zu-

zenduta egongo da; hala ere, dantza garaikidea ere erakutsiko dute bertan. Berango Merana ikastetxe publikoko gimnasioan egingo dituzte eskolak, eta Ana Rosa Tercero CDART eskolako irakaslea izango dute gidari. ◀

info+: www.berango.eu
danzacdart.wordpress.com
 harremanetarako: 946 680 008

Urrira arte itxiko ditu ateak Berango Antzokiak

Berango Antzokiaren jarduera Tor magoaren ikuskizunagaz amaituko da; izan ere, udal iturriek jakinarazi dutenez, ikuskizun horren ostean, eraikinak ez ditu ateak zabalduko urrira arte. Hori iragartzeaz gainera, joan den ikasturteko jarduera ona izan dela adierazi dute, jende ugari parte hartu baitu antolatutako ekintzetan. ◀



Barrika

Barrikako Udala

Gobernu-taldeko zinegotziak, arloz arlo



ROBERTO MUÑOZ GARCIA
Alkatetza
EAJ



JUAN JOSE EZPELETA PEREZ
Alkateordetza
Ibarrika



JOSE VICENTE GARCIA CASADO
Alkateordetza
Antolaketa eta Giza baliabideak,
eta Erakundea eta Ingurugiroa
EAJ



ANDONI ALKORTA MORENO
Alkateordetza
Kultura, Berdintasuna eta Kirola, eta Sustapen
ekonomikoa, Enplegua eta Gizarte-ekintza
EAJ

EH Bildu: «EAJk kudeaketa 'monopolizatu' nahi du»

Barrikako EAJk Tokiko Gobernu Batzordea eratu izana salatu du EH Bilduk, batzorde horren «ardurak eta eskumenak zehaztu barik, baina kide denentzako 120 euroko ordainarekin saio bakoitzeko». Koalizio abertzaleak argitu duenez, halako batzordeak 5.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan dira bakarrik derrigorrezkoak; Barrikak 1.500 biztanle inguru ditu. Hilaren 9an egindako udal batzarrean, EAJ eta Ibarrikaren aldeko botoei esker, Tokiko Gobernu Batzordea osatzea adostu zuten, baita hura osatuko duten kideak ere. EH Bilduk jakinarazi duenez, «alkateaz gain, beste hiru ordezkari egongo dira, hirurak

ala hirurak alkateordeak izango dira, eta tartean, Ibarrikak duen zinegotzi bakarra dagoela». Horrez gain, alkate berriaren erabakia salatu du koalizio abertzaleak: «kudeaketa esku gutxi batzuetan monopolizatuko duen eredu baten alde egin nahi du EAJk».

EAJren erantzuna

Jose Vicente García Barrikako EAJko zinegotziak azaldu duenez, Gobernu Batzordea eratu izanaren arrazoia «gauzak arindu ahal izateko izan da». Hala, bertako kide izango dira Roberto Muñoz, Jose Vicente García eta Andoni Alkorta jeltzaleak eta Ibarrikako Juan Jose Ezpeleta. ◀


Urduliz

Urdulizko Udala

Gobernu-taldeko zinegotziak



JAVIER BILBAO LOPATEGI
Alkatetza, Udalbatza
Gaiak, eta Ogasuna
EAJ



JOSE IGNACIO OLEA LLONA
Lehenengo Alkateordetza
EAJ



MARI CARMEN KAREAGA JORAJURIA
Bigarren Alkateordetza
EAJ



ALAZNE BILBAO OLEA
Hirugarren Alkateordetza
EAJ

Bestelako batzordeak

HIRIGINTZA, OGASUNA, HERRI-LANAK, ZERBITZUAK, KIROLAK, LANDA-INGURUA ETA TURISMOA:
Jose Ignacio Olea.

EUSKARA, BERDINTASUNA, KULTURA, LANA, GIZARTE ONGIZATEA ETA GAZTERIA:
Carmen Kareaga.

EAJ alderdiko lau ordezkariak osatuko dute Udal Gobernu

Ekinaren 13an, aginte-makila hartu zuenean, Javier Bilbao Urdulizko alkateak agindu zuen «zazpikoa barik, 11 zinegotzikoa izango» zela «Urdulizen alde lan egiteko» bere taldea. Hala ere, Gobernu Batzordea osatzean, kanpoan lotu dira EH Bildu koalizioak maiatzaren 24an lortutako hiru zinegotziak eta Denok Batera taldeak lortutako bakarra. Biak ala biak agertu ziren «herriarren alde jarduteko» EAJgaz «kolaboratzeko prest». Jelkideek eskuratutako zazpi ordezkarietatik hiru ere ez dira Gobernu Batzordean egongo. Javier Bilbaok berak, Jose Ignacio Oleak, Mari Carmen Kareagak eta Alazne Bilbaok osatuko dute aginte-organoa; eta azken hirurak alkateorde izango dira.

Bestalde, sortutako informazio-batzorde iraunkor biak, «Udalbatza Gaiak» eta «Ogasuna» izenekoak, al-



Jelkideen esku daude batzorde denak.

kateak zuzenduko ditu, eta zinegotzi denek parte hartuko dute. Azkenik, 13 lan-batzorde iraunkor sortu dituzte: batetik, hirigintza, ogasuna, herri-lanak, zerbitzuak, kirolak, landa-ingurua eta turismoa, eta Jose Ignacio Oleak zuzenduko ditu horiek guztiak; bestetik, euskara, berdintasuna, kultura, enplegua, gizarte-ongizatea eta gazteria-gaiak, eta horiek Carmen Kareagak gidatuko ditu. ◀



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

Tf. 94 676 07 15

txakoli
mota
ganeTx.
txakolina

Leioa Urbe enplegua 34 (Alkorta Parke) Goleen Eranda
Tf. 94 467 00 07 - www.txakolimagane.com

RKLAMATU
HEGALDIEN ATZERAPENEN KALTE-ORDAINAK
INDEMNIZACIÓN RETRASO VUELOS



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



OSIETA 3, ERANDIO - TF. 94 467 02 77





Haluzinatzen

URIZ MORENO AJURIA
Puta dinostazu,
txarra balitz legez

Ezetzaz eta bortxaketaren kulturaz

Dirudienez gizonezko zakildun batzuei nabarmen kostatzen jake ezetza ulertzea eta kartelak atara behar doguz pentsaera matxistak mugatutako euren garunetan eragiteko. Ez baita lengoaia arazoa; matxismo arazoa barik: zelan errespetauko dabe gure berbea, gure askatasuna onartzen ez dauen sistema heteropatriarkal honetan! Ez naz askea nire gorputzagaz zer egin erabakiteko, ez naz askea gura legez janzteko: gona luzeak moja bihurtzen nau, gona laburrak probokatzaile eta gerta dakikedanaren erantzule. Gonaren luzerak ez nau definiduten, ez da inorentzat ezertarako gonbidapena; kamiseta kendu eta titiak erakustea legez. Ez naz askea nahi dodan orduan nahi dodan lekutik nahi dodan moduan ibilteko, emakume izate hutsa arrisku-faktore baitot.

Justifikazio makinaria osoa dau atzean, «bortxaketaren kulturak» inguratzen gaituen jendarte honetan: sexu-indakeria normalizetan eta arinkeriaz agertzen da sexu-erasoen nonahikotasunean, hedabide-irudietan, ideia sozialetan eta praktika kulturaletan, biktima errudun bihurtuz: edanda egoala, bakarrik joiala etxera, gau osoan egon zala mutil haregaz zirritan edo horrela jantziz gero, zer gura dozu ba, neska! Sexu-kontestu ezberdinetan emakumeon askatasuna eta duintasuna errespetetan ez daben irudiak no nahi ageri jakuz iragarki, telesail eta eleberrietan: piroleatzea polita dala, emakumeok ezetz dingoanean beti ez dogula ezetz esan gura edo epel jokatzeko «zailarena» egiteko dala. Emakumeoi bortxatuak ez izatea irakatsi behar doskuela, gizonek ezin baitabe ekidin.

Gauza bi baino ez dozuez barneratu behar: 1)«Ez» badinotsut, utz naizu bakean; eta 2) bortxaketak jazotzeko arrazoi bakarra, bortxatzaileak zarie. Eta azken oharra: «Ez» esateko gai ez banaz, bortxaketa da be. ◀

Plentzia

Festek ez dute etenik, orain Saratxagaren ordua da

Kristobal Deunako, Karmengo eta Madalenako jaien ostean, festen ordua helduko da uztailaren 29an, eguenagaz, Saratxaga auzora. Egurdiko 12:30ean emango diete hasiera ospakizunei, auzoko landan egingo den mezagaz. Ondoren, ohorezko aurraskua dantzatu, eta bazkaria egingo dute tripak behar bezala asetzeko. Bazkarian parte hartu gura dutenek aldeztatik izena eman beharko dute turismo-bulegoan, arduradunek jakinarazi dutenez. Ondoren, behin ase ostean, gerrikoak astintzeko ordua helduko da dantzaldiagaz, Xaibor jarritako musikagaz. ◀



© XAIBOR

Egitaraua

Uztailak 29, eguaztena

12:30 Meza eta aurraskua

14:00 Herri-bazkaria. Aldeztatik izena eman behar da izena, turismo-bulegoan.

15:30 Dantzaldia, Xaiborregaz.

Gorliz

Barikutik astelehenera arte, Santiago jaiak!



Barikuan, uztailaren 24an, jai-giroak Gorlizko kaleak hartuko ditu, Santiago jaiak ospatzeko. Arrastiko 19:45era arte txupina jaurtiko ez badute ere, egun osoan auzotarrentzako hainbat jarduera egongo dira: eskubaloitailerra, herri-bazkaria eta umeentzako jolasak, barbarako. Iluntzean kontzertuak egongo dira Elizako eta Ibarreta plazetan. Hurrengo egunean, nekazaritza mundua helduko da Gorlizera, eta horregaz batera triki-poteoak, dantza-ikuskizunak, krooeskalada-proba, umeentzako jolasak eta kontzertuak: Esne Beltza eta DJ Markelin taldeakaz. Domekan festak aurrera jarraituko du, eten barik, astelehenera arte, hilaren 27agaz. Birtartean, bakailao eta tortilla txapelketak, eskulangintza-azoka, play-backa, kantaldiak, erromeriak, xake-partidak eta beste ekimen asko egongo dira aurrera Gorliz osoan. ◀

Ekitaldi batzuk

Uztailak 24, barikua

15:00 Herri-bazkaria, Estratakoetxe plazan.

19:45 Pregoi-irakurketa eta txupin-jaurtiketa.

22:30 Gorliz Pine-Groove Festivala, Elizako plazan.

23:00 60, 70, 80 eta 90etako musika, Los Otros taldeagaz, Ibarreta plazan.

Uztailak 25, zapatua

10:30 XXVII. Nekazaritza-azoka, Artzelu plazan.

18:00 Sagardotegi ibiltaria.

22:30 XXI. Habanera eta Euskal Polifonia Jaialdia, Ibarreta plazan.

24:00 Kontzertuak, Esne Beltza eta DJ Markelin taldeakaz; Elizako plazan.

Uztailak 26, domeka

09:00 XXXVII. Bakailao-txapelketa.

11:00 XXIX. Eskulangintza-azoka.

18:30 Play-back txapelketa.

23:30 Kontzertuak, Elizako eta Ibarreta plazetan.

Plentzia Telebistak bazkidetza-kanpaina abiatu du

Plentzia Telebistak pauso bat aurrera eman gura du, «zerbitzua hobetu eta ahal bezain beste etxeetako telebistetara heldu ahal izateko». Uda osoan, ezer grabatuko ez duten arren, «inurrien lana» egiten ibiliko direla azaldu dute, uda ostean «indarberrituta bueltatzeko». Aldaketak aurrera erodateko, iragarri dute guztien laguntza behar dutela: alde batetik, eurakaz kolaboratzeko prest dagoen jendea, eta, bestetik, diru-laguntza ekonomikoa. Horretarako, diru-laguntza jasotzeko bazkide-kanpaina abiatu dute, urtean 30 eurokoa da ordaindu beharreko gutxieneko ekarpena. ◀

Uribe Kosta

Mankomunitatearen inguruan hausnartzea eskatu du EH Bilduk

Uribe Kostako Mankomunitatea osatzeko dagoen arren, «aurreko legealdian gertatutako hainbat arazo errepika ez daitezkeen», EH Bilduk Mankomunitatearen egituraren inguruan hausnartzeko deia zabaldu du: «Indarrean dauden estatutuak erabat zaharkituak daude, ez diote errealitateari erantzuten, eta Mankomunitateak dituen helburuak eta kudeatzeko era ez daude askoz hobeto. Udalek egiten duten ekarpenaren eta jasotzen dutenaren arteko zerbitzuen neurria ez dago batere argi, eta birpentsatu beharra dagoela uste dugu». Mankomunitatea erakunde «ezegagun eta itxi» bihurtu dela salatu dute. «Herriarrek, oro har, ez dute ezagutzen, eta Osoko Bilkuratik kanpo dauden zinegotziei ere ez zaie ematen parte hartzeko aukerarik». Zentzu horretan, azpimarratu dute «nabarmena» dela Mankomunitatearen gardentasun falta. ◀

30. Urteurrena

XURRUT

Pizza - Bar - Musika Luzenean

Ondo pasa jaietan!!!

946 771 389 GORLIZ xurrut.com

Bizarreta

JATETXEA

Uresarantze bidea, 15 bis
ERRESERBAK: 94 677 08 78



Iaz The Wizards talde bizkaitarrak irabazi zuen metal kategorian. © THE WIZARDS

Pop-rocka, Bilbon

Bilbo Hiria Pop-rock lehiaketaren 27. edizioan parte hartuko duten 38 taldeak aukeratu ditu Bilboko Udalak; Uribe Kostako lau banda daude.

Daborduko aukeratu dituzte Bilbo Hiria Pop-rock lehiaketaren 27. ekitaldian parte hartuko duten 38 taldeak. Sariketaren web-orrian kontsulta daitezke aukeratutako taldeen izenak. Horien artean Uribe Kostakoak diren edo eskualdeko kideren bat daukaten

lau talde daude. Hautatutako taldeak irailean, urrian eta azaroan lehiatuko dira Bilborock aretoan. Pop-rock atalean daude Nazca (Getxo eta Bilbo), Adam Giles Levy (Getxo) eta Dings & Flamingos (Sopela eta Bilbo); eta metal kategorian, The Flying Scarecrow (Sopela). Musika elektronikoan zein

bestetako joeretan ez da uribekostarririk lehiatuko, Bilborock aretoko zuzeneko emanaldietan.

Denera, 643 taldek eman dute izena lehiaketan parte hartzeko, aurreko edizioan baino %4 gehiago, gutxi gorabehera. Sariketaren modalitate denetan egin dute gora inskripzioek, Bilboko Udalak zehaztu duenez. Kategorien arabera, pop-rock modalitatekoak 466 izan dira; metalekoak, 125, eta elektronika eta beste joera batzuetakoak, 52. «Jatorriari begiratzuz gero, %20 Araba, Bizkai eta Gipuzkoak izan dira; %70 inguru, Estatuko beste autonomia erkidego batzuetakoak (batez ere, Madrilgoak eta Kataluniakoak), eta %10 beste, herrialde batzuetakoak», jakinarazi dute antolatzaileek.

Bilbo Hiria Pop-rock lehiaketa 18 eta 35 urte bitarteko gazteek osatutako musika-taldeei dago zuzenduta. Besteak beste, sariketak eskainiko dituen pizgarrietako batzuk dira: talde irabazleentzako sariak (dirua, musika-tresnak, kontzertuetan parte hartzeko aukera eta zabalkundea), ezustekoak hurbiltzen den publikoarentzat, eta ekimen berriak ezagutu eta gozatzeko aukerak. ◀

info+: www.concursovilladebilbao.com



Azken kontzertua Bilboko Arriaga Antzokian emango du Oskorri, azaroaren 22an. © GKE

Salgai daude Oskorri taldearen Areetako agurrerako sarrerak

Getxoko XXXI. Nazioarteko Folk Jaialdian hasita, zazpi saioko kontzertu-jira bategaz luzatu gura die adio-agurra jarraitzaile minenei Oskorri taldeak. Hala, irailaren 6an, domeka, Areetako Xake plazan joko du 45 urtez Euskal Herriko folk-musikaren ikur izan den taldeak. Daborduko, sarrerak salgai daude 10 euroan, Algortako kultur etxean; bertoko arduradunek ohartarazi dutenez,

«baita azkar saldu ere!». Hortaz, sarre-
ra barik lotu gura ez duenak hobe du ahalik eta lasterren erostea. Kontzertua 20:00etan izango da.

Oskorri euskarazko folk-musikako taldea 1972an sortu zen. Gaur arteko ibilaldi luzean, hainbat kide eta kolaborazio izan ditu taldeak, baina beti izan dira Oskorriko kide Natxo de Felipe bilbotarra, Bixente Martinez eibartarra eta Anton Latxa itzubaltzetarra. ◀

Benito Lertxundik Plentziako Jai Alai pilotalekuan joko du abuztuaren 22an

Abuztuaren 22an, zapatua, Plentziako Jai Alai pilotalekuan emango du kontzertua Benito Lertxundi (Orio, 1942) abeslariak, hitzordua 21:00etan ipini dute. Daborduko sarrerak salgai daude 20 euroan, Kutxabankeko webgunean; erraz agortu ohi dira, beraz, arin ibili! Emanaldian, 2012an plaza-ratutako *Oroimenaren oraina* diskoko kantak izango dira nagusi.

Benito Lertxundi Esoain Ez Dok Amairuko kidea izan zen, eta kantatutako belaunaldi bateko ezagunenaren artean dago. Euskal kantagintza berriak eman duen musikaririk emankor eta beterranoenetakoa da, Euskal Herrian zein kanpoan miretsia eta laudatua. Oriotarraren abesti asko herri-kantutegiko klasiko bihurtu dira; itzulera-ko bidea egin dute, herri-kantutegira ere jo izan baitu Lertxundik, bereziki Zuberoakora. Gainera, Britainia eta Irlandako doinuak izan ditu iturri nagusiak. Azken hamarkadetan kutsu intimistagoa hartu du haren musikak. ◀

Agustin Zubikarai nobela-sarira aurkezteko aukera, irailaren 30era arte

Euskal kultura aberasteko eta idazleena lana bultzatzeko asmoz, Augustin Zubikarai saria antolatu dute berriro Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak. Deialdi horretara, eleberririk idazteko proiektuak aurkez daitezke: jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beste inondik moldatu gabek, eta aurretik saririk jaso edo argitaratu ez direnak. Parte-hartzaileek irailaren 30a arte edukiko dute landu gura duten kontakizunaren azalpena e-postaz bidaltzeko aukera. Hala, epaimahaiak jasotako proiektu denak aztertu, eta haien arteko bat izendatuko du irabazle urriaren 31 baino lehen.

Saria 6.000 eurokoa izango da. Ondarroako Udalak bekaren diru-kopuruaren erdia ordainduko dio irabazleari, izendatu ondoren, eta beste erdia, idazlana amaituta entregatuta-koan. Irabazleak urtebete edukiko du, gehienez, nobela aurkezteko. ◀

proiektuak aurkezteko: mrey@ondarroakoudala.net
info+: www.ondarroa.eu / www.elkarargitaletxea.eus



GETXO / SOPELA

Etxekoek eta turistek gozatzeko bisita gidatuak

Hemendiik irailera bitartean, Getxoko Turismo Bulegoak bisita gidatuak eskainiko ditu zapaturto, Areetako Bizkaiko Zubira, eta domekaro, Algortako Portu Zaharrera. Ibilaldiek 60 minutuko iraupena daukate; irteera 11:30ean izango da, eta ez da beharrezkoa izango aldeztu aurretik erreserba egitea, baina irten baino hamar minutu lehenago egotea gomendatzen da.

tzen dute udal arduradunek. Bestalde, Punta Begoñara bisitaldiak (ikus 4. orria) euskaraz zein gaztelaniaz egiteko aukera dago.

Sopelako Turismo Bulegoak ere inguruko labarrak ezagutzeko bisita gidatuak antolatu ditu uztailarako, baita abuzturako ere. Azken horiek, hileren 2an eta 3oean izango dira, domekan, 11:00etan. Parte hartzeko, ize-

na eman beharra dago Turismo Bulegoan, eta 3 euro ordaindu. Sopelan aspaldi antolatzen dituzte horrelako bisita gidatuak, turismoa bultzatzeko helburuagaz, eta herriak dauzkan hainbat ezaugarri agerian jartzeko. Gainera, geologiaren ezagutza handitzen, eta memoria historikoa bultzatzeko dute ekimen horregaz.

info+ 94 406 55 19 / turismo@sopela.eus.

2015/07/23 - goiz osoan	2015/07/25 - 2015/07/26 - 10:00-14:00
Kulturarteko tailerrak Josu Murueta plaza (Astrabudua) Erandio Erandioko Udalak antolatutako Aisialdiko Txokoan barruan. Umeen irakurzaletasuna sustatzeaz gainera, ekintza osagarriak egongo dira hileren 3oera arte. Parte-hartzea libre.	Piraguen mailegua Altzagako ontziraiekua Erandio 20 lekuk. Doan, Erandion errolatuentzat eta adin txikikoentzat. Informazio gehiago: 665 702 282
2015/07/23 - 19:30	2015/07/25 - 2015/07/26 - 16:00-20:00
Loli Rubioren Persoversos liburuaren aurkezpena Erakustaretoa Gortiz Gaztelaniaz. Sarrera doan.	Paddle-surfa Axe erribera Erandio 18 urtetik beherakoek heldu bategaz joan behar dute. Hamar lagun. txanda bakoitzeko. Txanda bi: 16:00etatik 18:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara. Doan, Erandion errolatuentzat. Informazio gehiago: 645 536 958
2015/07/24 - 2015/07/27 - egitaraua begiratu	2015/07/25 - 10:30
Santiago jaiak Herrian zehar Gortiz Aratz Dantza Taldeak jaurtiko du txupina. Besteak beste, herri-bazkaria, nekazaritza-azoka, bigantxak, eta bakailao-txapelketa egongo dira. Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda	LX. Paella Lehiaketa Aixerrotako landak Getxo Itxas Argia elkarteak antolatuta. Izen-ematea: 10:30ean. Paellak aurkeztu: 13:30ean. Sariak banatu: 17:30ean. Egitaraua: hiruka.eus/agenda
2015/07/24 - 2015/07/26 - egitaraua begiratu	2015/07/25 - 11:00
Santa Ana jaiak, Berangon Santa Ana auzoa Berangon Besteak beste, dantzaldiak, berbenak, kontzertuak, kirol-ekintzak, gastronomia txapelketak eta umeentzako jolasak ez dira faltako. Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda	Karmengo Amaren VIII. Ikurrina Portua Plentzia Arraunlari Beteranoen Elkartearen Ligaren barruan.
2015/07/24 - 2015/07/26 - egitaraua begiratu	2015/07/26 - 12:00
Santa Ana jaiak, Areetan Santa Ana auzoa Areeta Besteak beste, txikientzako gunea, ur-borroka, eta paella-lehiaketa egongo dira. Kontzertuen artean daude Dingos & Flamingos taldeak eta Mobydick bakarlariak emango dituztenak. Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda	Getxoko XXXVIII. Ikurrina Algorta Getxo San Miguel Ligako estropada.
2015/07/24 - 2015/07/26 - egitaraua begiratu	2015/07/26 - 14:00
Txumaren Nazioarteko Hiru Egunak txirrindularitza lasterketa Berango, Leioa eta Erandio Uribe Kosta Erandiogoikoko apaiza zenaren omenez. Hiru etapa: lehenengoa, Astrabudua-Astrabudua; bigarrena, Berango-Berango erljoipekoa; eta hirugarrena, Leioa-Erandiogoikoa. Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda	II. Triatloi Olinpikoa. Agustin Uriarte Oro-lasterketa Bizkaiko Zubia Getxo Igerian 1,5 kilometro, bizikletan 40 kilometro eta korrikan 10 kilometro egin beharko dituzte.
2015/07/24 - 19:00	2015/07/26 - 20:00
Bitsa-festa Euskadi plaza (Erandiogoikoa) Erandio Erandioko Udalak antolatutako Aisialdiko Txokoan barruan. Hileren 3oera arte egongo dira zabalik udako liburutegiak. Parte-hartzea libre.	Nazioarteko Dantza Jaialdia Urgitxietako plaza (Larrabasterra) Sopela Soweto Thabisong (Hegoafrika), Italmas (Udumurtiako Errepublika) eta Andra Mari (Galdakao, Euskal Herria) taldeek eskainiko dute dute dantza-erakustaldia. Doan.
2015/07/24 - 19:00	2015/07/28 - 22:30
Bitsa-festa Euskadi plaza (Erandiogoikoa) Erandio Erandioko Udalak antolatutako Aisialdiko Txokoan barruan. Hileren 3oera arte egongo dira zabalik udako liburutegiak. Parte-hartzea libre.	Los juegos del hambre: en llamas filma Kultur etxearen atzeko plaza Urduliz Euria bada, kultur etxeko areto nagusian. Gaztelaniaz. Sarrera doan.
2015/07/24 - 19:00	2015/07/29 - 2015/08/02 - egitaraua begiratu
Pirata garrapata	Santa Inazio jaiak Algorta Getxo

Besteak beste, kuadrillentzako proba ikusgarriak, jaitseria tradizionala, eta txipiroi lehiaketa egongo dira. Egitarau osoa: [hiruka.eus/agenda](#)

2015/07/29 - 14:00

Saratxagako jaiak
Saratxaga auzoa | Plentzia
Herri-bazkaria eta dantzaldia Xaiborregaz. Madalen Eguna ospatuko dute alde zaharrean zehar, kantutka ibiliz. Parte-hartzea libre.

haur-antzerkia
Irailaren 23a plaza (Altzaga) | Erandio
Erandioko Udalak antolatutako Aisialdiko Txokoan barruan. Gaztelaniaz. Doan.

2015/07/24 - 20:30

Plentziako Kantagunea
Eliz plaza | Plentzia
Alde zaharretik abesten atera aurretik, entssegua egingo dute baselizan, 19:00etan. Gura duen guztiak parte har dezake.

GETXO
Bertso-maratoia, Algortako jaietan

Uztailaren 31n izango da saninazioeta-ko bertso-maratoia. Ohiko saioaren os-teen, bazkarian (20 euro) eta poteoan kantatuko dute Jone Uriak eta Andoni Egañak. Izen-ematea, 27ra arte. ◀

izen-ematea: albegetxo@gmail.com / 605 70 43 85

GETXO
Algortan izango da Ertibil erakusketa

Torrene aretoan geldialdia egingo du Ertibil arte-erakusketa ibiltariak, uztai-laren 30etik abuztuaren 21era. 20 artis-ta gazteren lanak egongo dira ikusgai, besteak beste, Maria de Viana getxoza-rraren lana. ◀

GORLIZ
Ziklista gazteentzako mendiko erlojupekoa

Santiago egunean, hilaren 25ean, men-diko erlojupekoa edukiko dute bizikle-tazale gazteek; 6 eta 8 urte artekoek 200 metro egingo dituzte, eta adin horreta-tik gorakoek, 500 metro. Izen-ematea: 11:00etatik 12:00etara, ikastetxean. ◀


GETXO
Kale-liburutegiak mugituko dituzte

Uztailaren 30era arte, martitzena, egongo dira zabalik Neguriko Ger-nika, Algortako Iturgitxi eta An-dra Mariko Sarri plazetako kale-liburutegiak. Hala ere, ez pentsa Letren Terrazak ekimenak hilaren amaieran agur esango digunik. Abuztuaren 3tik 28ra, Areetako Xake zein Algortako Telletxe eta Aldapa plazetan egongo dira li-buru, ipuin eta egunkariz beteriko etxolatuak. Astean behin, jola-sak eta esku-lanak edukiko dituz-te txikiek; eta noizbehinka magia, antzerkia eta ipuin-kontaketak.



GORLIZ
Jazz kontzertua egongo da eguenero Xurrut taberna kanpoaldean

Xurrut pizzeriak 30. urteurrenaren os-pakizunetan murgilduta jarraitzen du. Hala, eguen honetan, uztailak 23, Jazz Ostegunak ekimena abiatuko du Hor-mazalanda plazako tabernak. Horren-bestez, abuztuaren 27ra arte, musi-ka-estilo hori jorratzen duten taldeek joko dute (ahal dela) Xurrut kanpoal-dean, eguenero, 21:00etatik aurrera, sarrera doan. Uribe Kosta eskualdean sorturiko The Great Barrier musika egi-tasmoa izango da lehenengoa kontzer-tua ematen. *Winter greets you* izenagaz kaleratu zuen orain dela hilabete ba-tzuk lehenengo diskoa. ◀





Loreak filma ikusgai, Gorlizen

Noiz: Uztailak 30, eguena
Ordua: 22:30
Non: Pilotalekua
Sarrera: Doan

Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendutako bigarren filma ikusgai egongo da, euskaraz, Gorlizen. Aneren bizia kontatzen du. Emakume horren bizimodua goitik behera aldatuko da, astero-astero etxean lore-sorta bat jasotzen hasten denean; beti modu anonimoan....◀

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1

Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2

www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Uztailaren 8an zabaldu zuten erakusketa.

Comete sareari buruzko erakusketa, Bilbon

Bilboko Azkuna Zentroak *Comete, ihesbide sarea* izeneko ikus-entzunezko erakusketa hartuko du, irailaren 20ra arte. Astelehenetik domekara, 11:00etatik 21:00etara egongo da zabalik; sarrera, doan. Horregaz batera, *Azken bidai*a dokumentala emango dute irailaren 16an, euskaraz eta gaztelaniaz. Bigarren Mundu Gerrako iheslarien ebakuazioko sare klandestinoak izan zen Comete Sarea; naziak okupatutako Europar eroritako hegazkinlari aliatuei laguntzen zieten etxera bueltatzeko. Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko muga Bidasoatik edo Pirinioetatik zeharkatu ostean, Gibraltarrera eroaten

zizuten pilotuak. 1941 eta 1944 artean, 3.000 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten antolaketa sare horretan. «Bilbo eta Euskal Herria funtsezko piezak izan ziren Comete sarea abian jartzeko», antolatzaileek diotenez.

Erakusketan, sinkronizatutako monitorean eta pantaila interaktiboen bidez, bideo-instalazioak gonbit egiten digu Comete sareko protagonista-talde bat zuzenean ezagutzeko. Bizi diren lagunen (hegazkinlariak, gidariak eta kolaboratzaileak) eta beste hainbaten senideen kontakizunak eta bizipenak aurki daitezke bideoan grabatutako 30 elkarrizketetan. ◀

Eduardo Gruberren marrazkiak ikusgai, Bilboko Rekalde Aretoan

Urriaren 13ra arte Eduardo Gruber Gamechogoicoechearen (Santander, 1949) *Utopia* erakusketa egongo da ikusgai Bilboko Rekalde Aretoan. Martitzenetik zapatara, goizez, 10:00etatik 14:00etara eta, arratsaldean, 17:00etatik 20:30era bisitatu ahal izango da; sarrera, doan; domeketan, ostera, goizez bakarrik. Eta astelehenetan

itxita egongo da. Erakusketa formatu handiko eta egikera konplexuko marrazkien aukera-sorta bat da, Gruberrek azken hiru hamarkadetan egingakoak. Horrez gainera, marrazkien multzo zabal eta aldakor bat dauka ikusgai, «izaera intimokoa eta beteazazpen arinekoa», *Cuadernos de viaje* (1988-2004) izenekoak. ◀



Belena usaina

DAVID CRESTELO DOMINGUEZ
Plentziarra

Udako zaporeak

Gazteagoa nintzenean, 12 edo 14 urterekin, uda heltzea itxaroten nuen, gozoz, urtaro berriarekin batera beste leku batzuetako lagunak etortzen zirelako. Eta ikasturteari agur esaten nion momentuan, hondartza eta itsasadarreko ateak zabaltzen ziren, Andra Mariko jaietan ni bezalako nerabeok mundua konkistatzen genuela pentsatzen nuen eta Ingalaterrara joandako lagunak ozpin-gustua zeukaten Lays papata frijituak probatzeko aukera ematen zidan.

Udako zapore inozenteak erraz galdu nituen eta beste batzuk dastatzera ausartu nintzen, orain arte. Aurtengoa berezia izaten ari da, meza batetik prozesio batera joanez edo euskaraz berba egitearren bronkak jasoz... nerabazaroko bidea laster aurkituko dudala espero dut. ◀

Astebeteko oporraldia irabazi gura duzu?

Uribe Kostako uda argazki-lehiaketa antolatu du HIRUKAK, Eroski Bidaiek-en laguntzagaz. Uztailaren 27tik 31ra bidali ahalko dira irudiak, hiruka.eus webgunera. Sariduna herri-bozketaz aukeratuko da, irailean.

Parte-hartzaileak

Uribe Kostan jaio edo bizi diren 18 urtetik gorako herritarrak.

Noiz eta zelan aurkeztu

Uztailaren 27tik abuztuaren 31ra (biak barne), www.hiruka.eus webgunearen bidez.

Saria

Nagusi bi eta ume batentzako mantenu erdiko astebeteko oporraldia, Ohtels hotel batean, behe-denboraldian, 2016ko ekainaren 30era arte.

Herri-bozketa

Irailaren 1etik 29ra, webgunean. Irabazlea nor den urriaren 1ean jakinaraziko da.



Uztailaren 27tik abuztuaren 31ra, biak barne, **Uribe Kostako uda** izeneko argazki-lehiaketan parte hartzeko aukera edukiko dute Uribe Kostan jaio edo bizi diren 18 urtetik gorako norbanakoek (Uribe Kostatzat hartzen da: Erandio, Leioa, Getxo, Berango, Sopela, Barrika, Urduliz, Gorliz, Plentzia eta Lemoiz). Hala, parte-hartzaile bakoitzak 2015eko udako hiru irudi, gehienez, aurkeztu ahal izango ditu, horizontalak, koloretan edo zurri-beltzean, jpg edo png formatuetan.

Inguruotan edo urruntxoago, uribekostarron uda zelakoa den irudikatu gura dugu: monumentuen, eraikinen, paisaien, lagun arteko giroaren, hondartzako zein mendiko osteren, herriko jaietako irudien eta abarren argazkiak bidali ditzakezue. Izan ere, eskualdean udaz gozatzen duten edo munduan barrena oporretan dauden Uribe Kostako herritarren lekukotza jasoz gura dugu; baita euskaraz harremanetan jartzeko topagunea eskaini ere.

hiruka.eus agerkari digitalean lehiaketarako propio egongo den atalera igo beharko dituzue fotografiak. Eta hortxe, Uribe Kostako Uda argazki-galerian ikusgai egongo dira.

Sari bakarra egongo da: nagusi bi eta ume batentzako mantenu erdiko astebeteko oporraldia Ohtels kateko hotel batean, behe-denboraldian, 2016ko ekainaren 30era arte (hautatutako data aukeran balego); Eroski Bidaiek-en laguntzagaz. 1.000 euroko balioa dauka sariak, baina ezin izango da diruagatik edo beste sari batenagatik trukatu.

Sariduna herri-bozketaz aukeratu da: boto gehien jasotzen dituen argazkiaren egileak irabaziko du. Bozketa hiruka.eus webgunearen bitartez egingo da, irailaren 1etik 29ra bitartean. Irabazlea nor den urriaren 1ean jakinaraziko dugu, HIRUKA paperezko astekarian eta hiruka.eus agerkari digitalean. Horrez gainera, HIRUKA e-postaz edo telefonoz jarriko da harremanetan saridunagaz. ◀

URIBE KOSTAKO UDA ARGAZKI-LEHIAKETA

Zelan eta non igarotzen duzu uda? Konta egiguzu zeurea irudien bitartez!

Uztailaren 27tik abuztuaren 31ra bitartean

1.000

euroko balioa duen
bidaia* izango du
saritzat argazki
onenak!

* Bi nagusi eta haur batentzat mantenu erdiko astebeteko oporraldia Ohtels kateko hotel batean, behe-denboraldian, 2016ko ekainaren 30era arte, hautatutako data aukeran balego.



info+: www.hiruka.eus

e-posta: hirukakoop@hiruka.eus

ANTOLATZAILEA

Uribe Kostako komunikazio-taldea, HIRUKA Koop. ELK., Eroski Bidaia-en laguntzagaz. HIRUKA Koop. ELK-ko langile eta ahaide hurbilekoen, edo lanbidez zozketagaz lotura dutenen parte-hartzea ez da onartuko.

HELBURUA

Eskualdean udaz gozatzen duten edo munduan barrena oporretan dauden Uribe Kostako herritarren lekukotza jaso eta euskaraz harremantzeko topagune digitala eskaini gura du HIRUKAk argazki-lehiaketa honen bidez.

PARTE-HARTZAILEAK

Uribe Kostan jaio edo bizi diren 18 urtetik gorako herritar denek parte har dezakete.

PARTE-HARTZEA

EPEA: uztailaren 27tik abuztuaren 31ra bitartean (biak barne).
PARTE HARTZEKO BIDEA: argazkiak www.hiruka.eus agerkarian lehiaketarako propio egongo den atalera igo beharko dituzte parte-hartzaileek, bertan aurkitu duten datu-eskaera betez.

BALDINTZAK

2015eko udan ateratakoak. Koloretan zein zuri-beltzean; beste inon argitaratu bakoak izan beharko dute. Jpg edo png formatuetan. Argazkiek ezin izango dute 5MB baino gehiagoko tamaina izan eta horizontalean ateratakoak izan beharko dute.

- Egilearen izen-abizenak, adina eta herria.
- Harremanetarako telefonoa.
- Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
- Argazkiaren izenburua.

Parte hartzeak esan gura du egileak aitortzen duela bidalitako lanaren eta horren edukiaren ardura duela. Beraz, parte-hartzaile bakoitzak izango da hirugarren baten eskubideak ukatzearen gerta litezkeen erreklamazio guztien arduradun bakarra, honen barruan sartuz muga bako jabetza industrialeko edo intelektualeko lege-jabetza eta irudi-eskubideak. Hiruka komunikazio-taldea kalte barik utziko duela hitzematzen du.

Parte hartzaileek emandako datuak zozketa bideratzeko erabiliko den HIRUKA Koop. ELK-aren fitxategi batean sartuko dira. Halaber, HIRUKA Koop. ELKak jakinarazten dizu du pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren eta horretarako aplikatu daitezkeen araudien arabera inolaz ere erabil dezakezula datu pertsonalak sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo horiei aurka egiteko eskubidea.

Horretarako, idatzi bat bidali behar diozu, postaz, HIRUKA Koop. ELK-ri, egindako eskaera adieraziz eta NANaren kopia bategaz, helbide honetara: HIRUKA Koop. ELK – Martikoena 16, 2. Solairua – 48992 Getxo, Bizkaia. Bestela, bezeroarentzako arreta-zerbitzura deitu: 944 911 337, edo mezu elektronikoko bat bidali hurrengo epostara: hirukakoop@hiruka.eus

Antolatzaileek bere gain hartzen dute argazki batzuk lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea, giza eskubideen kontrakoak direla uste badute: bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa, ohorezko eskubidea, bakoitzaren intimitatea eta familiarena edo bestelako eskubide urraketak adierazten dituzten lanak ez dira onartuko.

Hiruka Koop ELK. ez da irudien jabe izango, hala eta guztiz ere, jasotako argazkiak HIRUKAko artxiboan gordeko dira, eta lehiaketan parte hartzen duenak onartzen du HIRUKA komunikazio-taldeak bere argazkiak erabili ahal izango dituela, beti ere egilearen izena

aipatuz. Erreklamaziorik izanez gero, idatziz bidali beharra egongo da helbide honetara: HIRUKA Koop. ELK., Martikoena 16, 2. solairua - 48992 Getxo, Bizkaia. Beharra izanez gero, antolakuntzak beregan hartzen du oinarriak aldatzeko ahalmena eta, era berean, ahalmena du oinarrietan ez datorren edozein gertakizun konpontzeko.

2015ko Uribe Kostako Uda Lehiaketan parte hartzen duenak oinarri hauek bere osotasunean onetsiko eta onartuko ditu.

SARIA

Sari bakarra izango da: 1.000 euroko balioa duen bi nagusi eta haur batentzat mantenu erdiko astebeteko oporraldia Ohtels kateko hotel batean, behe-denboraldian, 2016ko ekainaren 30era arte, hautatutako data aukeran balego.

Ez da inolaz ere onartuko irabazitako sarien ordez, beste sari batzuk edo dirua hartzea.

SARI-BANAKETA

Herri-bozketaz aukeratuko da sariduna: boto gehien jasoko dituen argazkiaren egilea.

Bozketa www.hiruka.eus web-orriaren bitartez egingo da, irailaren 1etik 29ra bitartean.

Erabakia ezin izango da eztabaidatu edo gaitzetsi.

Irabazlea nor den urriaren 1ean jakinaraziko dugu, Hiruka paperezko astekarian eta [hiruka.eus](http://www.hiruka.eus) agerkari digitalean. HIRUKA epostaz edo telefonoz jarriko da harremanetan saridunagaz.

HIRUKA Koop. ELK.-k bere egiten du, edozein arrazoi dela medio, zozketa behin betiko aldatzeko, bertan behera uzteko edo eteteko eskubidea, eta ez du inolako erantzukizunik izango horregatik.



Uribekostarrak non, Uribe Kosta han!

Zuretzat uda zer den adierazten duen argazkia HIRUKAri bidaltzea gura dugu: uztailaren 27tik abuztuaren 31ra bitartean.

hiruka

Uribe Kostako astekaria



«Egoerei aurre egiteko jarrerak dakar arrakasta»

Xabier Uribe-Etxebarria (Getxo, 1981) industria-ingeniarria da, Sherpa Next laguntzaile pertsonalerako aplikazioaren sortzailea, eta Anboto Group enpresako presidentea, bultzatzailea eta sustatzaile nagusia ere bada, bestek beste. Bere esanetan, erabiltzailearen kidea da sortu duten aplikazioa, erabiltzailearen bizitza etengabe hobetzen diharduena. Izan ere, bere berbetan, laguntzaile on batek denbora aurreztu eta bizi-kalitatea hobetu behar dio erabiltzaileari.



IKER RINCON MORENO

Sherpa Next aplikazioa Samsung Galaxy S6 eta Samsung Galaxy S6 edge mugikorretan egongo da aurreinstalatuta, bestek beste. Zer eskaintzen du app horrek zehazki?

Hiru urte daroztagu lanean, dispositibo mugikorretan informazioa kontsumitzeko moduak iraultzeko sistema bat erabiltzaileei eskaintzeko. Orain arte, informazioaren bila joan behar izan dugu; Sherparen bitartez, berriz, guregana etortzen da gure gustuetan oinarritutako informazioa. Sherpa bertsio berria oinarrituta dago gure beharrei aurrea hartzen dien laguntzaile pertsonal batean; informazio aipagarriena bilatu eta filtratu egiten du, norbanakoari interesatzen zaionaren arabera. Erabiltzailearen gustuen eta beharren arabera ordenatzen du informazioa, egunaren barruan aldatzen joango diren txarteletan. Hala, zapatu gau batean, Sherpak jatetxeen edota zinemen inguruko jardueri emango die garrantzi handiagoa, eta martitzenetan, barbarako, agendari, albisteei edo burtsari.

Sherpaz gainera, beste hainbat laguntzaile pertsonal aurki daitezke Google Play bezalako mugikorren merkatuetan. Zerk ezberdintzen du beste horien guztien artean?

Laguntzaile pertsonalen sistema ugari aurki daitezke, bai; baina guk aurreikuspen-ahalmenak dituztenetan bakarrik ikusten ditugu lehiakideak, Google

Now esaterako. Beste guztien aurrean, hiru aurrerapen handi eskaintzen ditu Sherpa Nextek: lehenengo, aurreikuspeneko algoritmo zehatzago bat. Horrela, erabiltzaileen interesen arabera emaitza egokituagoak aurkitzen ditu Sherpak, ezer bilatu behar barik, Adimen Artifizialdun aurreikuspeneko algoritmo berritzaile bati esker. Hala, etenga-

“**Sherpak emaitza egokituagoak eskaintzen dizkio erabiltzaileari, lehiakide zuzenek baino**”

be ikasten du erabiltzaileagaz, eta horrela, emaitza egokituagoak eskaintzen ditu, lehiakideek baino. Horrenbestez, erabiltzaile batek rock-musika gustuko badu, edo Athletic Clubaren zalea bada, talde horren emaitzak, hurrengo partidak edo bere gustuetan oinarritutako kontzertuak eskainiko ditu aplikazioak, barbarako. Bigarrena, lekuan lekuko informazioa bilatzen du. Nire aktorerik gogokoena-zen azken pelikularen estreinaldiaren zein ondoko herriko merkatu ekologiko baten berri emango dit bertsio berriak, nire gustuak ezagutzen baititu. Eta hirugarrena, erabiltzailean dago oinarrituta: Disei-

nua eta Erabiltzailearen Esperientzia, aurrekaririk gabe. Sherpa Nexten diseinu berria oinarrituta dago mugi, toles eta zabal daitezkeen txarteletan, karta-sorta bat izango balitz bezala. Horiekaz, informazioa hobeto ulertuko da eta nabigazioa errazagoa izango da. Hala, gure futbol-taldeaz informatzen duten txartelek futbol-zelai bat izango dute hondoan, gure taldearen armariagaz. Modu berean, zinemako egitarauaren inguruan informatzen duenak pelikularen irudi bat aurkeztuko du, barbarako.

Etorkizunera begira, berrikuntzarik sartuko diozue Sherpari?

Etorkizunera begira egiten dugu lan beti, erabiltzailearen esperientzia zelan hobe daitekeen pentsatzen. Sherpa produkturik onena bilakatzea da helburua, eta horretara bideratuta gaude. Orain, gainera, banaketa lantzen hasi gara, produkturik onena izateaz gainera, ahalik eta dispositibo gehienetan egon dadin.

Zelan eta noiz bururatu zitzaizuen aplikazio hori sortzeko ideia?

Nik esan ohi dut gertatzen diren gauza ugariaren batasuna dela bizitza; azkenean, apurka-apurka sortzen hasten zarela. Hala ere, data bat jarri nahi izanez gero, esan genezake 80ko hamarkadan izan zela, Appleren *Knowledge Navigator* bideoa ikusi nuenean. Horretan, gizon bat ikus zitekeen bere makinagaz «berba» egiten, mota guztietako informazioa eskatzeko. Orduan, hori posiblea zela pentsa-



tu nuen, eta guk sortu genezakeela hori errealtate bihurtzeko teknologia.

Kritika oso onak jaso dituzue aplikazio horren bila-kaeragaz. Bidea ez da erraza izan, ezta?

Ez, ez da erraza izan, baina nik esaten dudana bezala: «arrakasta edo porrota ez da egoeraren arabera-koa, baizik eta horiei aurre egiteko gure jarrerarena». Hortaz, gure esku dago gertatzen zaigun ia guztia, eta horiei aurre egiteko modua. Batzuetan, hitzaldietara gonbidatzen nautenean, duela urteak sortutako formulagaz ikustarazten dut hori: S (arrakasta) = T (talentua) + A (jarrera) + C (egoera).

Aplikazioa doakoa da, eta ez du publizitaterik. Zelan egin dezakezue aurrera?

Finantziarioagaz bizi gara orain, eta gaur egun oso zaila da hori. Hasieran, hiru fasetan definitu genuen sortutako konpainiaren bidea, eta horiek betetzen gabiltza banan-banan. Lehenengoa, produktu on bat izatea zen; gero, ahalik eta jende gehienak edukitzea produktu hori, eta, azkenik, zelan lortu etekinak produktu horregaz. Oraindik ez gara heldu hirugarren fase horretara, baina esaten duzun bezala, publizitatea edo babesleen loturak txertatzea aukera bat izan liteke.

Aplikazio horrez gainera, 2009an Anboto Group enpresa sortu zenuen. Zelakoa izan zen prozesua? Bai, nire lehenengo enpresa izan zen. Gogorra izan

zen, baina une arrakastatsuak izan genituen, eta Anboto ikasitako guztia oso baliagarria izan zaigu Sherpan akats berberak ez egiteko.

Enpresa horregaz, hainbat sari irabazi dituzue. Berbarako, 2010ean Urteko Munduko *start-up* onenaren saria jaso zenuten Silicon Valley (AEB).

Oso aitorten polita izan zen, eta «mapan gure lekua egiteko», nor ginen ezagutarazteko lagundu zigun. Ilusioa egiten digu, baina esan ohi dudana legez: ez gara sariez bizi, erabiltzaileek gustuko izango duten produktu on bat egiteaz baino; eta horretan jarri behar dugu arreta.

Hala ere, sari horiek guztiek aurrera egiten lagunduko zizueten...

Bai, laguntzen dute, eta ilusio ere sortzen dute. Baina, esan dudana bezala, ezin gara galdu poz horretan segundo bat ere; ezta kexatu ere, arazo bat dugunean. Hegan egin behar dugu, onenakaz lehiatu ahal izateko!

Linguistika eta semantikaren inguruko teknologien alorreko enpresa onenen artean zaudete. Zelan lortu duzue hori?

Ez dakit hori horrela den, baina guk produkturik onena egiteko lan egiten dugu. Linguistikan onak izan gaitezke, edo satelliteak egiten... Ez gaitu inolako teknologiarik kikiltzen, eta behar dena egingo dugu onenak izateko.

Zure aitarengatik datorkizu linguistikarako afizioa. Bai, hala da. Aitak talentu handia dauka hainbat arlotan, eta linguistika da horietako bat. Bere zaletasuna izan da bizitza osoan, eta nik berarengandik ikasi dut, eta ikasten jarraitzen dut. Egia esanda, asko miren dut.

Laguntzaile birtualen sistemak egiten dituzue. Zer dira, eta zelan funtzionatzen dute?

Laguntzaile pertsonal ugari dago merkatuan, baina guretzat, definizioa apur bat ezberdina da. Niretzat, laguntzaile pertsonal batek ez die erantzun behar bakarrik ahots bidezko galderei. Hortik harago joan beharko luke; gure kidea izan behar du, eta etengabe bizitza hobetzeko lanean jardun. Laguntzaile on batek denbora aurreztu, eta bizi-kalitatea hobetu behar digu.

Zuen sistemakaz, gaur egun makinek hainbat hizkuntza ulertzen dute, hitz egiten diegunean. Zelan da posible?

Zer esaten diegun transkriba dezakete makinek, eta gai dira agindu zehatz batzuk ulertzeko. Ulerkera gero eta konplexuagoa da, baina oraindik ere urrun gaude esaten dugun guztia haiek ulertzetik.

Zein makinatan ezar daiteke sistema hori?

Nik uste dut ia guztietan. Ez gaude alor guztietan sartuta, baina mugikor batetik hasi eta kotxe batean ere ezar daiteke hori. Komunikazioa gizakien artekoa bezalakoa denean, are errazagoa izango da makinak hori erabiltzea.

Zer-zelako bezeroak dituzue?

Gure bezero bakarra erabiltzailea da. Hala ere, egia da bezerotzat har genitzakeela sortzaile handiak, berbarako: hitzarmenak ditugu Samsungegaz...

Enpresa gaztea zareten arren, nazioarteko proiektzioa baduzue...

Gure produktua kontzeptu beretik nazioartekoa da. Internetek hori ahalbidetzen digu, eta horretaz baliatu behar dugu.

Zelan ikusten duzu Internet eta makinaren arteko etorkizuna?

Ufa! ez dut uste horri erantzuteko egokiena naizenik. Esan ohi dudana legez, ez dut kristalezko bolarik,

“ Etorkizunean, pertsonak eta dispositiboak Internetera konektatuta egongo dira; hori seguru! ”

hala ere, gauzen Interneta lehertu egingo da gutxi barru. Hori horrela, pertsonak eta dispositiboak, baita etxeko-tresnak eta arropak ere, Internetera konektatuta egongo dira; hori seguru.

Sistema batek ondo funtzionatzen duenean, enpresa handiak horiez jabetzen dira dirutzak ordainduz. Egoera hori gerta daiteke zuen kasuan?

Guk ez dugu enpresa sortu horretarako, baizik eta munduko handienakaz lehiatzeko. Hala ere, argi dago aukera bat izan daitekeela gure kasuan. Gaur egun, produktuan eta banaketan zentratuta gaude. ◀



Beteranoak, Plentziako uretara

Honakoak izango dira Baterak zapatuan izango dituen arerioak: Ibaialde, Sestao, Zarautz, Fortuna, Lutzana-Deustu, Getxo, Zumaia, Ponteijos eta Zierbena. © BATERA

Munduko ligarik onena helduko da Plentziara zapatuan. Hala dio Arkote Beteranoak Batera elkarteko Joseba Bilbao. ABE Ligaren 8. proba puntuagarria izango da.

Karmengo Amaren omenez, Plentziako beteranoen estropadaren bandera jokatu da zapatuan, 11:30ean, bertako portuan hasita. Aurretik, Plentziako Itsasadarraren XXV. Igoera eta Jaitsierako piraguismo-proba egingo dute.

Parte hartuko duten 10 traineru-ek 3.500 metro egin beharko dituzte. Ondoren, hamaiketako izango dute,

zaleakaz batera. Plentziakoa ez da Arraunlari Beteranoen Elkarteko aurtengo Ligak Uribe Kostan jokatu duen estropada bakarra. Abuztuaren 15ean, Portu Zaharrera hurbilduko da; abuztuaren 29an, Erandiora; eta lehiaketaren amaiera ere, Armintzan izango da, irailaren 19an. Halere, azken estropada horietan edozein puntu erabakigarri izan daiteke. Gaur egun, Ba-

tera traineru plentziarrak dauka ligaren lidergoa, 57 puntugaz, baina estu jarraitzen dio Zierbenako eskifaia, orain arteko 7 estropadetan 55 puntu metatu baitituzte. Hiru ohiko faboritoetako hirugarrena, Getxo, taularen erdian dago, bosgarren postuan, 38 puntugaz. ABE Ligako 10 traineruen artean, aipatutako biez gainera, Uribe Kostako beste bat dago: Lutzana, Deustugaz taldea osatuta.

Joseba Bilbao umil dio: «hobere-nak irabaz dezala», Plentziako estropadaren zein Ligaren gainean berba eginda. Halere, ez ditu ezkutatu Ba-

terak Liga laugarren aldiz irabazteko duen gogoia: «2015a guretzat urte garrantzitsua da, kirol zein kultur elkar-te gisa; sendotze urtea. Kirol-mailan izan dugun hobekuntza kontuan hartuta, erronka handiak izango ditugu: Munduko ligarik onenaren laugarren entorchado-a irabaztea...». 2007an, 2008an eta 2010ean irabazi zuen Arkotek. Jorge Madariaga gorliztarra zuhurragoa da, eta ez du garaipenaz berba egin, baina, badaezpada, ondo atontzen du zapatuan estropadaren garai-leek jasoko duten bandera. Bateratxu maskotaren egilea da Madariaga. ◀

Itsas neska-mutilek ere birziklatzen dute



Merkuriozko pila batek 600 mila litro ur kutsa dezake. © ABRACO ITSAS ERREGE KLUBA

Abrako Itsas Errege Klubaren eta Jose Luis Ugarte Bela Eskolaren neska-mutilek pilak batuko dituzte uda honetan, itsasoa garbi egon dadin. Izan ere, Ecopilas eta Ecomar fundazioek antolatutako lehiaketan parte hartuko dute, irailaren hasierara

arte. Estatuko hainbat bela-eskola eta itsas klubek hartuko dute parte, eta pila gehien batzen duenak kirol materialerako 2.000 euroko txeketa irabaziko du. Horrez gainera, Theresa Zabell kirolari olinpiko ohiak birziklatze ikastaroak eman dizkie gazteei. ◀

Leire Fuente, hirugarren Joko Atlantikoetan



Euskal selekzioaren kide batzuk. © J. A.

Euskadi garaile izan zen, pasa den egunean Orion eta Zarautzen egindako XXI Joko Atlantikoetan. Txapelketako hiru egunetan, euskal selekzioak domina gehien lortu zituen arraunean, piraguismoan, belan, surfean, igeriketan, ur irekietako diziplinetan, salbamenduan eta sorospenean. Euskadiko selekzioan, hainbat uribekostar lehiatu ziren; besteak beste, Leire Fuente surflari sopoloztarrak brontzezko domina lortu zuen shortboard kategorian, 18 urte azpiko emakumezkoen artean. ◀

Gazteentzako Surf ikastaroa, Barinatxen



Surf eskolak Barinatxen. © SOPELAU UDALA

Getxoko Bizarra Lepoan euskara-elkarteak surf-ikastaroa antolatu du abuztuaren 3tik 6ra. Zortzi orduko tailerra Sopelako eta Getxoko Barinatxe hondartzan izango da, euskaraz, egunero 17:00etatik 19:00etara. 8 eta 16 urte bitarteko neska-mutilei dago zuzenduta ekimena, eta hiru adin-taldetan banatuko dituzte. Izen-ematea daborduko abiatu dute, eta epemuga barikuan izango da. Prezioa 20 eurokoa da; bazkideentzat, 15 euro. Izen-ematea goizez egin daiteke.

izen-ematea: 944 910 387 / 667 540 242

Txumaren nazioarteko 3 egunak



Erlojupekoa egunez aldatu dute, hasieratik proba erabakita ez geratzeko. © ELKAR KIROLAK

Azken urteotan legez, Erandiogoikoko apaiza izan zen Txuma Olague berangoztarra omenduko dute Txumaren Nazioarteko Hiru Egunek. Txirrindularitza-proba misto hori bere laugarren ediziora helduko da aurten, Erandioko Udalak eta Elkar Kirolak txirrindularitza-eskolak lasterketa berreskuratu zutenetik, Leioa eta Berangoko Udalen babesagaz. Txirrindulari kadeteentzat ezinbesteko proba bihurtu da Olagueren omenezkoa.

Tropel handia

Hala, Txumaren Nazioarteko Hiru Egunek txirrindulari gaztez beteko dituzte eskualdeko errepideak bari-
kuan, zapatuan eta domekan: dabor-
duko 32 taldek eta 200 txirrindularik
eman dute izena. Haien artean dira
Eugenio Sanchez valentziarra, iazko
irabazlea; hainbat nazio, lurralde eta
autonomiatako selekzioak: Esko-
zia, Aragoi, Asturias, Galizia, Nafarroa,
Madril, Murtzia, Valentzia, Araba edo

Katalunia, esaterako; Lyongo Sprint Evolution taldea; Gruas Sancho Punta Galea taldea; probako antolatzaile den Elkar Kirolak eskolako kadeteak; edo CAF Transport Engineering emakume-taldea.

Ibilbidea

Hiru etapako lasterketak nobedadeak izango ditu aurtin. Barikuan, gaeuz taldekako erloju kontrakoagaz hasi beharrean, errepideko etapa menditsua izango dute neska-mutilek 19:00etatik aurrera. Astrabudua-Astrabudua etapa horrek 62,25 kilometro izango ditu, Getxo, Berango, Sopela eta Erandiotik pasatuko da. Litekeena da tropela Unbe edo Arriagako aldatsetan apurtzea. Zapatuan, taldekako erlojupekoa izango da, 17,6 kilometrokoa. Berangotik irten, eta Sopela eta Urduliz igaro ostean, Berangora bueltatuko dira. Azken etapa Leioatik Erandiogoikora joango da, 53,4 kilometro zeharkatuz. Helmuga proposa izan daiteke aldats gorako esprintean jokatzeko. ◀

***Soline Lamboley,
Europako scratch
txapelduna***

Soline Lamboleyk urrezko domina lortu zuen pasa den barikuan, hilak 17, Europako Txirrindularitzako Txapelketan. Lointek Team talde sopoloztarraren txirrindulari frantsesa pistako scratch-modalitatean nagusitu zitzaizen beste 24 lasterkariri, 23 urte azpiko emakumeen kategorian. Sheyla Gutierrez taldekide errioxarrak ez zuen podiuma zapaltzea lortu, laugarren geratu baitzen. Txapelketa Greziako hiriburuan jokatu da, Atenaseko belodromoan. Garai berean, Lointek taldeko beste kide batzuek Britainiako Tourrean parte hartu zuten. ◀

Plentziako bandera eroan du Hondarribiak

Hondarribia Bk irabazi zuen zapa-
tuan Plentziako XXVII estropada,
KAE-2 Ligan. Ama Guadalupekoa trai-
neruak 10 segundoko aldea atera zion
Hibaikari. Uribekostarrak 5. (Arkote),
7. (Lutxana) eta 9. (Getxo) geratu zi-
ren. Sailkapen nagusian, Castro dago
buruan 67 puntugaz, atzean Hondarri-
bia B duela (65). Arkote laugarren da,
eta 54 ditu; Getxo, seigarren (43), eta
Lutxana, zazpigarren (39). Datorren
domekan, Getxoko bandera jokatu-
dute KAE-2ko traineruek, 14:00etan.
Aurretik, Euskotren eta San Miguel li-
gak izango dira, 12:00etatik aurrera. ◀



© FRANDIOKO T.F.

Bizkaiko Zubia isiotu zuten, pasa den zapatuan, 1.200 bat txirindularik, pedalei eraginez. Erandioko Txirindularien Elkartek 25. urtemugarako antolatutako ekitaldian, hamaika jarduera egin ziren, San Filipopo sindromea duten umeak laguntzearen.

HIRUKAko kide izan gura duzu?



Bi aukera dituzu:

- 1** Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota : 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota : 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

- ☐ **Bazkide Erabiltzailea**
☐ **Bazkide Laguntzailea**

Hiruka laguna

- ☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____€

Izena	NA
-------	----

[illegible][illegible][illegible]

Herrialdea											Telefonoa									
------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	-----------	--	--	--	--	--	--	--	--	--

[illegible]

Kontu korrante zenbakia																		
-------------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Aben duaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileak HIRUKAR eman dako datu fitzategi automatiko baten sartuko dira, erabiltzailearekin harremanetan jartzeko eta HIRUKARren informazioa eta publizitatea helarazteko. Beasley erabiltzen erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar du. Erabiltzaileak duen datuak zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetan idatziz: hiru@hiruka.eus

Villa, Inglaterratik Arenasera



Eskumako hegalean jokatzeko du Luismi Villak.

Arenas futbol-taldeak Luismi Villa aurrelaria probatzeari ekin zion astelehenean, denboraldi-aurrekoaren lehenengo saio fisikoan. Kantabriarrak 26 urte ditu, eta azken denboraldi bietan Inglaterrako Hirugarren Ligan jokatu du, Barnet klubean. Villak 36 partidu jokatu zituen azken denboraldian, eta 14 gol sartu zituen. Aurretik, Espainiako Lehenengo Mailan artida bakarrik jokatu zuen, Racing taldeagaz. Ondoren, Racing B, Real Union, Alaves, Amorebieta eta Noja taldeetatik ere pasatu zen, Inglaterrara joan baino lehen. Villa ez da Arenas futbol-taldearen fitxaketa bakarra: Jose Martinez Oya eta Jon Madrazo erdilariek

ere jantziko dute elastiko gorri-beltza. Bestalde, Dopi berreskuratu dute, Somorrostron utzita egon ostean. Carlos, Pablo, Txolo eta Murua gazteek ere ekin diote lehenengo taldeagaz entzatzeari.

Ligaren egutegia

Espainiako Federazioak klubei inposatu dien banaketa dela-eta, Leioak eta Arenasek Nafarroa, Kantabria eta Errioxara bidaiatu beharrean, Gaztelaraino joan beharko dute. Halere, Arenas etxean estreinatuko da abuztuaren 23an Gernikaren aurka, eta abuztuaren 30ean, Portugalete bisitatuko du. Uribe Kostako derbia, Leioaren aurka, irailaren 6an jokatu dute, etxean. ◀

Fadurako aldagelarako errefortzuak, ekarrita

Pasa den astelehenean ekin zion denboraldi-aurrekoari Getxo Kirol Elkartek, Faduran. Oraingoz, lau jokalarik fitxatu dituzte Jon Moreno entrenatzaileak eta zuzendaritzak. Hurbilena Anton Olondo da, 30 urteko erdilarik bilbotarra, Arenasetik datorrena. Besteak dira Jon Apellaniz

23 urteko erdilaria, Julen Soraluze erdilaria, eta Javi Sainz defentsa, hurrenez hurren, Santurtzitik, Durangoko Culturaletik eta Sodupetik datozenak. Bestalde, Jon Morenok lehenengo taldeagaz entrenatzen jarri ditu gazte-taldeko jokalarik batzuk: Diego, Karlos, Palen, Arana eta Dani. ◀



Segovia, Dai, Antxia eta Urrutia jokalariek taldearen diziplina utzi dute.

Valverde konbentzitzen saiatuko da Aketxe



Austriako partidetan maila ona agertu du Ager Aketxek. © ATHLETIC

Sabin Merino urduliztarrak legez, Ager Aketxe getxoztarrak ere Ernesto Valverde Txingurri entrenatzailearen azterketa gainditu beharko du denboraldi-aurrekoan. Aketxek kontratua dauka Athleticagaz 2017ko ekainaren akabura arte, baina

pasa den denboraldian partida gutxi metatu zituen: dozena bat. Orain arte getxoztarrak joko ona erakutsi badu ere, ezin uka daiteke Valverdek Leganesetik ekarritako Javier Eraso iruindarra gurago duela erdilarik-aurrelari posizioan titular gisa jarduteko. ◀

Javi Fontanedak Espainiako marka hobetu berri du



Fontaneda. © FELIX SANCHEZ ARRAZOLA - D. K. T.

Javier Fontaneda atleta beterrano getxoztarrak Espainiako errekorra apurtu du 1.500 metroko lasterketan, 50 urtetik gorako master mailan. Balentria hori pasa den uztailaren 11n egin zuen, Durangon. Izan ere, bertan egin zen Euskadiko Atletismo Txapelketa. Fontanedak 4 minutu 10 segundoko eta 96 ehunen erabili zituen, eta orain arte Juan Vazquez Sanchez malagarrik zeukan marka ia bi segundotan jaitsi zuen. Europako hirugarren markarik onena lortu zuen horrela, gainera. ◀

Mikel Calvok sendotuko du Leioako taldea



Mikel Calvo. © EIBAR K. E.

Pasa den uztailaren 15ean, eguazte-
na, prestaketa-lanak abiatu zituen Leioako Kirol Elkarteen lehenengo taldeak. Hiru egun beranduago, zapa-tuan, Mikel Calvo Leioako prestatzaile fisiko berria aurkeztu zuen klubak. Hala, Igor Gordobil entrenatzaileak talde leioaztarra ehuntzen jarraitzen du, denboraldia hasteko hilabete falta denean. Amorebietaren aurka, kanpoan estreinatuko da aurten Leioa, abuztuaren 23an. River hartuko du abuztuaren 30ean, eta Arenas bisitatuko du irailaren 6an. ◀

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Batzuetan iruditu arren, beroak ez dizu burmuina birrinduko eta tinpanoetatik irtenaraziko. Halere, burua busti ezazu, eta hidrata zaitez.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Oliba bako muztioa da, dantza bako iraultza, edo gorringo bako arrautza bezalakoa. Zure eskubi-deak aldarrikatu!



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Jaitsi lagunakaz, eta parte hartu kuadrilla-bazkarian zein ondorengo planean. Primeran pasatuko duzue denok batera.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Ez gorde erositako zozketa-txartelak edozein lekutan, bestela galduko dituzu; eta tokatu arren, ez duzu horren berri izango.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Gogoratu kanpin-gasak gasa behar duela arroza ganoraz berotzeko. Kozinatzen hasi aurretik, egiaztatu den-dena kontrolpean duzula.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Behingoz garaiz helduko zara lagunarteko hitzordura, eta konturatuko zara zugaz hogein minutu lehenago geratzen direla, ezagutzen zaituztelako.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Zorionez ala zoritxarrez, arrazoi gehiago dauka Zea Maysen *Negua joan da ta kantak*, Mendebaldeko Starktar denen *negua badator* horrek baino.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Nork esan dizu Aixerrota arroza besterik ezin duzula jan, edota uztailaren 25ean paella Aixerrota baino ezin duzula egin?



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Jolasak, irribarreak eta algarak izango dituzu aste honetan. Txikienek anabasa sortzen dute, baina maitagarriak dira.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Beroagaz guztiok gaude haserrekorrako. Hortaz, erantzun txarren bat eman aurretik, birritan pentsatu. Lasaiago ibiliko zara!



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Ezin da ganorazko bazkari bat egin, bi kilo janari eta hogeit hamar litro edarigaz. Ziur zaude erosketak ondo egin dituzuela?





Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Berak gura duen legez, jar dezala irabiatuta ala nahasita, baina jar dezala beste bat. Eta batez ere, oso hotz egon dadila!

Soluzioa



Zazpi ezberdintasunak



Eskelak

Aurrerantzean eskelarik jarri behar baduzu, hauxe da zure lekua

Tel.: 94 491 13 37

e-posta: publi@hiruka.eus

Amaia Muruaga Alcibar

Erandion hil zen, 2015eko uztailaren 15ean, 64 urte zituela

Bat-bateko agurrak eragindako gaurko zauria, denborak osatuko duen biharko orbaina: joandakoaren maitasun-oroitzapena.

Besarkadarik bihotzekoena,
Martikoenako kideak

Gorrondatxek orduan ipini du erloju geologikoa

Gorrondatxeko itsaslabarre sari berria heldu zaie asteen. Estratigrafiaren Nazioarteko Batzordeak aintzat hartu ditu historiaren erlojua orduan jartzeko Getxoko hondartzak emandako pistak. Saria Aitor Payros EHUko ikerlariak jaso du, Gorrondatxe aztertu duen taldearen izenean.



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Aitor Payros Leioako EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakasleak ICS Medal saria jaso zuen martitzenean, Austriako Graz hirian egin den STRATI2015 Estratigrafiaren Nazioarteko II. Kongresuko ekitaldi nagusian. Estratigrafia eta Paleontologia Saileko ikerlaria da Payros, eta Getxoko Gorrondatxeko itsaslabarretako geruzen azterketa koordinatu du azken 12 urteotan.

Payrosek HIRUKAri azaldu dionez, ikerketan antzeman zuten ez zutela bat egiten gertaera geologikoak kronologikoki datatzeko eta ordenatzeko ohiko teknikek, Gorrondatxen aplikatuz gero. Erloju ezberdin horien arteko aldea 3 milioi urtekoa ere izan zen. «Geologian epe luzeak erabiltzen ohituta gaude, baina 3 milioi urte gehiegi da», dio Payrosek. Horregatik, «erlojuak sinkronizatzeko asmoz», datazio-sistema zuzentzeko hainbat aldaketa proposatu zuten euskal ikerlariak. 2007an *Lethaia* aldizkari zientifikoan argitaratu zuten, ingelesez, *Behe eta Erdi Eozenoko biomagnetokronologiaren birbalioztatzea*, *Gorrondatxeko sekzioaren ebidentzien arabera*. Euskal Herria, mendebaldeko Pirinioak. Hasieran kritika gorra jaso bazituzten ere, urteakaz Gorrondatxeko taldearen lana mundu mailan hedatu da. Nazioarteko Estratigrafia Batzordearen ustez, ikerketa horrek «berebiziko ekarpen bikaina» sortu du. Payrosek saria talde osoarena dela esan du, baita «gure aurretik» Gorrondatxe ikertzen hasi zirenean ere. Halere, argi dauka «benetako sariduna Gorrondatxe bera» dela, «berak zeukan eta informazio dena. Guk irakurri besterik ez dugu egin», aitortu du.

Hamabi urteko lana
Halere, Payros «oso harro» agertu da: «ezagutza profesional bat izateaz gain, poztasun pertsonal handia ere ematen didalako». «Ez zen batere lan erraza izan Gorrondatxen eskuratutako emaitzen balioaz zientzialariak konbentzitzea, seguruenik itxura sendoa zutelako 50 urtetik gora indarrean izan diren kalibraketa estandarrek, eta, beraz, gure alternatiba po-

Gorrondatxen, harriak datatzeko, ezin zen aplikatu azken 50 urteetan erabili izan den kalibraketa estandarra

lemikoa zelako», dio. EHUko ikertzailea 2003an hasi zen sakonean aztertzen Gorrondatxeko sekzio estratigrafikoa. Itsaslabarra orain dela 47,8 milioi urteko harri sedimentarioz osatuta dago; itsas hondoa pilatuta dago, 1.500 metro inguruko sakoneran. «Gorrondatxen, harriak datatzeko ezin zen aplikatu azken 50 urteetan erabiltzen ibili diren kalibraketa estandarra. Eozenoko gertaerak ustez aldi berean gertatu zirenak, eta, ondorioz, harrien maila berean aurkitu behar zirenak Gorrondatxen geruza oso desberdinetan zeuden, eta horrek 3 milioi urte inguruko desadostasunak eragiten zituen kalibraketa estandarraz. Arazo horren aurrean, jatorrizko lanak berrikusi eta erregistro geologikoak bildu genituen beste eremu batzuetan. Horrek eraman gintuen ondorioztatzeraz kalibraketa estandarrek akats garrantzitsuak zituela, eta Gorrondatxeko gure behaketak fidaga-



Ezkerrean, Aitor Payros. Goian, Gorrondatxe. Behean, ezkerrean, Gorrondatxeri buruzko jardunaldiak, 2009an; behean, eskuman, Urrezko Ittzea saria eman zioten Gorrondatxeri 2012an. HIRUKA/© GETXOKO UDALA



rriak zirela», azaltzen du Payrosek. Sinesgaitza den arren, ikertzaile bat ere ez zen horretaz konturatu 50 urtean. Ikerlariak azpimarratu duen legez, datazio-tresna fidagarriak edukitzea izugarri garrantzitsua da geologian, zientzia horretako lanetan zehatz kontrolatu behar baita harkaitzen adina. Eta petrolio eta gasa bezalako baliabide naturalak ateratzeko ere bai. «Era berean, Lurraren iraganeko gertaeren efektuak ere aztertzen ditu geologiak, adibidez, berotze globala, glaziazioa, meteoritoen inpaktuak, sumendien erupzioak, eta abar. Gainera, datazioak zehazten du zein izan zen eratorritako gertaeren segida; etorkizunean antzeko egoerak gertatuz gero, zer gerta daitekeen aurreikusteko; hala, ezinbestekoa da iraganeko gertaerak hurrenkera kronologiko zuzenean kokatzea, eta horretarako da beharrezkoa datazio fidagarria». ◀





Mundukatuak

Jon Moran Llovet itzubaltzetarra

«Oaxaca da Mexikoko lekurik merkeenetarikoa»

Uribe Kostatik Costa Ricara egin zuten orain dela hilabete batzuk Jon Moran Llovetek eta bere bikotekideak. Izan ere, lan-kontratua eta ikasteko gogoia amaituta, «hainbestetan pentsatu izan dugun Ertamerikarako bidaia egiteko unea zela erabaki genuen». Costa Ricatik Mexikoko Oaxaca estatuko Puerto Escondido herri turistikora joan ziren. Turistarena egiteko azken dirua amaituta, makramez egindako artisautza saltzen ibili ziren. Horrela, hilabete baino gehiago eman dute bertan, «bizitzaz disfrutatzen». Halere, lerro hauek irakurtzean, bidaiaren hurrengo etapan izango dira: Cancun ondoko Playa del Carmen hirian.

Jatun ona izanda, Moranez ez du inolako arazorik izan Oaxacan, «denetarikoa janari goxoa baitago». Adibidez, bertako *tamalak*, zein edozereztako talo mexikarrak, «eurek *tacos* deitzen

dituztenak». Hamaika arrain-espezie erabiltzen dute sukaldean, eta plater nagusia *ceviche*-a da, arraina limoizko urak beratuta; eta mila aldagai eta osagai onartzen dituen platera. Funtsean, Oaxaca Mexikoko «lekurik mer-

“Tsunamiak 16-18 metroko olatuak sortu zituen. Ikustekoa, benetan izugarria!”

keenetarikoa da jateko, baina baita edateko eta lo egiteko ere». Edarrietan, *mezcal*-a da likorerik tipikoena, *maguey* landarea destilatzen lortzen dena: «oso gogorra da, baina mozkorra hartzeko nahiko aproposa!». Herrian hiruzpalau diskoteka daude, malekoi alboan. Dena den, guztia ez da alkohola, eta freskagarritzat hamaika

fruta tropikalen zukuak egiten dituzte. Jaiei dagokienez, nagusiak azaroan egiten dituzte. Halere, Moranez kontatu duenez, lantzean behin festaren bat egiten dute hondartzan. Bestela, «giro polita» izaten da diskoteketan: «mexikarrek dantza egiteko ohitura dute, eurakaz oso ondo pasatu dugu».

Tsunamiak

Halere, dena ez da festa izaten Oaxacan. Bertan ez dira ezohikoak mugimendu sismikoak, eta, Ozeano Barean egon arren, noiz edo noiz tsunamiak kostaldeari eraso egin diote. Jon Morani egokitu zitzaion horrelako gertara bat bizitzea: «nahiko astiro izan zen dena, baina itsasoa hazten joan zen, eta gu hondartza alboko kanpin batean geundenez, arin ospa egin behar izan genuen, urak dena hartu aurretik. 16-18 metroko olatuak sortu ziren. Ikustekoa, benetan izugarria!». ◀

NOR DA

Nongoa

Itzubaltzeta/Romokoa

Adina

32 urte

Zertan dabil

Turista legez heldu zen bikotekideagaz, orain dela hilabeteak, baina dirua amaitzean, artisau-lanak saltzeari ekin zion.


Ikasketak

Elektrizitate eta Marketin goi-graduak.

Noiz arte Mexikon?

Ez daki, baina turroia elkarregaz jateko «mehatxua» egin die laguneri.

NON DAGO



Herrialdea

Mexikoko Estatu Batuak

Azalera

1.964.375 km²

Hiria

Puerto Escondido (Oaxaca)

Biztanleria

25.902 biztanle

Hizkuntzak

Mexikarren %97k gaztelania darabilte, eta hizkuntza hori da ofiziala, *de facto*. Hala ere, Jatorrizko Herrien Hizkuntza Eskubideen Lege Nagusiaren arabera, gaztelaniaz gainera, 65 hizkuntza indigena «nazional» daude izendatuta eta aitortuta. Biztanleen %7k erabiltzen dute horietakoren bat. Oaxacan, mixtekoa eta zapotekoa dira bertako hizkuntza zabalduenak.

Dirua

Peso mexikarra

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. 48991 GETXO
e-Posta: hiruka@hiruka.eus **P.-Ku.:** 171
Telefonoa: 944 911 337
Erredakzio-burua: Irantzu Sagarmínaga
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Zuberoa Iturburu
Testuen orrazketa: Iratze Ormatza

Argazkiak:

Hodei Torres
Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri
Publizitatea: Erika Martinez/Ninbe Landa
Kudeaketa: Zortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege Gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95 **CC-BY-SA**
Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:



Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurilariaren diru-laguntzak jaso ditu